k. Sorkuntzan euskaraz burututako eta diruz lagundutako proiektu kopurua urtean.	28	k. Número anual de nuevos proyectos de creación en euskera apoyados.
l. Lagundutako sorkuntza gunek kopurua urtean.	6	l. Número anual de centros de creación apoyados.
m. Berdintasun plana duten eta lagundutako sormen lantegi kopurua.		m. Número anual de centros de creación apoyados con planes de igualdad de género incorporados.
2.2. Kultura sektoreko profesionalen prestakuntzarako laguntza espezifikoa.		2.2. Ayudas específicas a la formación de profesionales sectoriales de cultura
a. Kultura sektoreko profesionalentzako etengabeko prestakuntzan parte hartutako emakumeak.	80	a. Número anual de participantes mujeres en la formación para profesionales de los diferentes sectores culturales.
b. Kultura sektoreko profesionalentzako etengabeko prestakuntzan parte hartutako gizonak.	120	b. Número anual de participantes hombres en la formación para profesionales de los diferentes sectores culturales.
c. Arte eszenikoen profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako eta laguntzarako proiektu kopurua urtean.	20	c. Número anual de proyectos de formación permanente y apoyo a profesionales de las artes escénicas.
d. Ikusentzuzko profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako eta laguntzarako proiektu kopurua urtean.	5	d. Número anual de proyectos de formación permanente y apoyo a profesionales de las audiovisuales.
2.3. Sortzaileen ikusgarritasuna.		2.3. Visibilización del colectivo creador.
a. Euskadi literatura sarietan emakumezko saridun kopurua urtean.	2	a. Número anual de premios de Literatura de Euskadi concedidos a mujeres.
b. Euskadi literatura sarietan gizonezko saridun kopurua urtean.	5	b. Número anual de premios de Literatura de Euskadi concedidos a hombres.
c. Aurkeztutako Euskadi literatura sarietarako emakumezko hautagai kopurua urtean.	26	c. Número anual de candidaturas de mujeres presentadas a los premios de Literatura de Euskadi.
d. Aurkeztutako Euskadi literatura sarietarako gizonezko hautagai kopurua urtean.	56	d. Número anual de candidaturas de hombres presentadas a los premios de Literatura de Euskadi.
e. Gure Artea sarietan, emakumezko saridun kopurua urtean.	2	e. Número anual de premios Gure Artea concedidos a mujeres.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
f. Gure Artea sarietan, gizonezko saridun kopurua urtean.	1	f. Número anual de premios Gure Artea concedidos a hombres.
g. Aurkeztutako Gure Artea sarietarako emakumezko hautagai kopurua.	5	g. Número anual de candidaturas de mujeres presentadas a los premios Gure Artea.
h. Aurkeztutako Gure Artea sarietarako gizonezko hautagai kopurua.	10	h. Número anual de candidaturas de hombres presentadas a los premios Gure Artea.
2.4. Kultura ekoizpenaren dinamizazioa.		2.4. Dinamizar la producción cultural.
a. Lagundutako musika proiektu kopurua urtean.	56	a. Número anual de proyectos musicales apoyados.
b. Lagundutako arte eszeniko proiektu kopurua urtean.	45	b. Número anual de proyectos de artes escénicas apoyados.
c. Lagundutako ikus-entzunezko proiektu kopurua urtean.	45	c. Número anual de proyectos de audiovisual apoyados.
d. Lagundutako paperezko argitalpen proiektu kopurua urtean.	200	d. Número anual de proyectos de edición de libros en papel apoyados.
e. Lagundutako argitalpen digital kopurua urtean.	75	e. Número anual de edición de libros digitales apoyados.
f. Arte eszenikoetako sustapen-programa kopurua urtean, antzoki publikoetan.	4	f. Número anual de proyectos de promoción de artes escénicas en teatros públicos.
g. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna balorazio irizpide deneko diru-laguntza deialdi kopurua urtean.	10	g. Número anual de convocatorias de subvenciones en las que la igualdad entre mujeres y hombres es un criterio de valoración.
h. Euskara balorazio irizpide deneko diru-laguntza deialdi kopurua urtean.	12	h. Número anual de convocatorias de subvenciones en las que el uso del euskera es un criterio de valoración.
i. Balorazio Batzordeetan parte hartu duten emakumeak urtean.	106	i. Número anual de mujeres participantes en comisiones de valoración.
j. Balorazio Batzordeetan parte hartu duten gizonak urtean.	70	j. Número anual de hombres participantes en comisiones de valoración.
2.5. Nazioartekotzea.		2.5. Internacionalización.
a. Koordinatutako proiektu kopurua urtean.	10	a. Número anual de proyectos coordinados.
b. Europako programetan parte hartzen duten lagundutako proiektu kopurua urtean.	15	b. Número anual de proyectos de programas europeos apoyados.
c. Film Basque Country nazioarteko azoketan zenbat aldiz izan da urtean.	3	c. Número anual de ferias internacionales a las que acude Film Basque Country.
d. Etxepare Euskal Institutuarekin nazioartekotze proiektu eta euskal kulturaren kanpoko zabalkunderako lankidetzak kopurua urtean.	18	d. Número de proyectos de internacionalización y de acciones de difusión exterior de la cultura vasca realizados en colaboración con el Instituto Vasco Etxepare.
2.6. Ekoizpena indartzeko programak.		2.6. Programas para el fortalecimiento productivo.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
a. Euskal Antzoki SAREAko gomendatutako obren katalogoan sartutako ikuskizun kopurua urtean.	80	a. Número anual de espectáculos incluidos en el catálogo de obras recomendadas de la Red Vasca de Teatros SAREA.
b. Euskal Antzoki SAREAko gomendatutako obren katalogoan sartutako eta emakumeak zuzendutako ikuskizun kopurua urtean.	15	b. Número anual de espectáculos incluidos en el catálogo de obras recomendadas de la Red vasca de teatros SAREA dirigidas por mujeres.
c. Euskal Antzoki SAREAren Idazkaritza Teknikoaren zerbitzua erabiltzen duten antzoki kopurua urtean.	50	c. Número anual de teatros usuarios del servicio de la Secretaría Técnica de la Red Vasca de Teatros SAREA.
d. Euskal musikaren ekoizpena eta zabalkundea sustatzeko EUSKADIKO SOINUAK programaren bidez bultzatutako jarduera kopurua urtean.	12	d. Número anual de acciones impulsadas a través del programa EUSKADIKO SOINUAK, de apoyo a la producción y difusión de la música vasca.
e. Arte garaikidea bultzatzeko EREMUA programaren testuinguruan sustatutako ekintza kopurua urtean.	12	e. Número anual de acciones apoyadas en el contexto del Programa EREMUA para la promoción del arte contemporáneo.
f. EREMUA-eko programetan lagundutako emakumeak urtean.	6	f. Número anual de mujeres beneficiarias en los diferentes programas de EREMUA.
g. EREMUA-eko programetan lagundutako gizonak urtean.	6	g. Número anual de hombres beneficiarios en los diferentes programas de EREMUA.
h. Euskal zinea eta euskarazko zinea sustatzeko ZINEUSKADI programaren bidez lagundutako proiektu kopurua urtean.	50	h. Número anual de proyectos apoyados en el Programa ZINEUSKADI para la promoción y fomento del cine vasco y en euskera.
<b>3. KULTUR ESKAINTZA SENDOTZEA</b>		<b>3. REFORZAR LA OFERTA CULTURAL</b>
3.1. Ekitaldi eta sistema kulturalaren mapan eragina izatea.		3.1. Incidir en el mapa de eventos y sistema cultural.
a. Lagundutako ekitaldi traktore kopurua urtean.	6	a. Número anual de eventos tractores apoyados.
b. Lagundutako erakunde traktore kopurua urtean.	5	b. Número anual de instituciones tractoras apoyadas.
c. Diru-laguntza izendun bidez kultura-programak gauzatzeko lagundutako EAEko udal kopurua urtean.	7	c. Número anual de ayuntamientos de la CAE apoyados para sus programas culturales mediante subvenciones nominativas.
d. Kultura programak gauzatzeko diruz lagundutako eta emakume eta gizonen arteko berdintasuneko plangintzak txertatuta duten EAEko udal kopurua urtean.	6	d. Número anual de ayuntamientos de la CAE apoyados para sus programas culturales con planes de igualdad entre mujeres y hombres implantados.
3.2. Kulturaren informaziorako tresnak sendotzea.		3.2. Fortalecer herramientas de información.
a. Argitalpen kopurua urtean.	20	a. Número anual de publicaciones.
b. Gizarte sareen erabiltzaile kopurua urtean.	4.000	b. Número anual de personas usuarias en redes sociales.
c. Buletin elektronikoan harpidedun kopurua urtean.	3.700	c. Número anual de personas suscritas al boletín electrónico.
d. Buletin elektroniko kopurua urtean.	100	d. Número anual de boletines electrónicos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
e. Kulturklik webgunearen bisita kopurua urtean.	250.000	e. Número anual de visitas a la página web de Kulturklik.
3.3 Publiko kulturalen kontsolidazioa.		3.3 Consolidación de públicos culturales.
a. Kultura ohiturak sustatzeko lagundutako kanpaina kopurua urtean.	1	a. Número de campañas de promoción apoyadas para el fomento de hábitos culturales.
b. EAEn lagundutako kultur azoka kopurua urtean.	21	b. Número anual de proyectos de ferias culturales apoyadas en la CAE.
c. EAEn lagundutako arte eszeniko ikuskizun kontratu kopurua urtean.	245	c. Número anual de contratos de espectáculos de artes escénicas apoyados en la CAE.
d. EAEn lagundutako musika-kontzertu kopurua urtean.	60	d. Número anual de conciertos de música apoyados en la CAE.
e. EAEn ikusizko arteen zabalkunderako lagundutako proiektu kopurua urtean.	22	e. Número anual de proyectos de difusión de artes visuales apoyados en la CAE.
f. EAEn emakumeei lagundutako zuzeneko ekitaldien (arte eszenikoak eta musika) eta ikusizko arteen kopurua urtean.	116	f. Número anual de espectáculos de artes en vivo (Artes escénicas y música) y visuales a mujeres apoyados en la CAE.
g. EAEn gizonei lagundutako zuzeneko ekitaldien (arte eszenikoak eta musika) eta ikusizko arteen kopurua urtean.	211	g. Número anual de espectáculos de artes en vivo (Artes escénicas y música) y visuales a hombres apoyados en la CAE.
h. EAEn lagundutako nazio eta nazioarteko jaialdi kopurua urtean.	32	h. Número anual de festivales de carácter nacional e internacional apoyados en la CAE.
i. Emakume eta gizonen arteko berdintasun klausulak erantsita duten EAEn lagundutako nazio eta nazioarteko jaialdi kopurua urtean.	18	i. Número anual de festivales de carácter nacional e internacional apoyados en la CAE que incorporen cláusulas de igualdad entre mujeres y hombres.
j. Ikuslegoa sortzeko, fidelizatzeko eta ugaritzeko lagundutako proiektu kopurua urtean.	15	j. Número anual de proyectos de creación, fidelización e incremento de públicos apoyados.
<b>4. KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK SUSTATZEA</b>		<b>4. IMPULSAR LAS INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS</b>
4.1. Programen bidez sektorea sustatzea.		4.1. Dinamización sectorial a través de programas.
a. Kultura eta sormen industrien RIS3 gidaritza taldearen bilera kopurua.	2	a. Número de reuniones del grupo de pilotaje RIS3 de industrias culturales y creativas.
b. Finantza gaikuntza (KSI BERRITZAILEA) ardatzean parte hartu duten enpresa kopurua.	20	b. Número de empresas participantes en la línea de capacitación financiera (KSI BERRITZAILEA).
c. Berrikuntza teknologikorako lagundutako proiektu kopurua urtean (KSI BERRITZAILEA).	20	c. Número anual de proyectos de innovación tecnológica apoyados (KSI BERRITZAILEA).
d. Enpresa ereduaren berrikuntzarako ardatzean parte hartu duten enpresa kopurua (KSI BERRITZAILEA).	30	d. Número empresas participantes en el eje de innovación de modelo empresarial (KSI BERRITZAILEA).



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
e. KSI BERRITZAILE programan sustatutakoetatik emakumeek zuzendutako proiektu kopurua.	15	e. Número de proyectos apoyados por KSI BERRITZAILEA liderados por mujeres.
f. Arte eszenikoak ikusgai egiteko lagundutako proiektu kopurua urtean.	1	f. Número anual proyectos de visibilización de las artes escénicas apoyados.
g. Profesionalen arteko genero berdintasuna sustatzeko garatutako programa kultural kopurua urtean.	1	g. Número anual de programas culturales vinculados a promoción de la igualdad de género de profesionales.



**PROGRAMA**  
4514 ONDARE HISTORIKO ARTISTIKOA  
**ARDURADUNA**  
10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA  
KULTURA SAILBURUORDETZA  
KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA

**PROGRAMA**  
4514 PATRIMONIO HISTÓRICO ARTÍSTICO  
**RESPONSABLE**  
10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
VICECONSEJERÍA DE CULTURA  
DIRECCIÓN DE PATRIMONIO CULTURAL

### **MEMORIA**

Kultura Ondarearen Zuzendaritza bost zerbitzutan antolatzen da: Kultura Ondarearen Zentroa, Museoen Zentroa, Euskadiko Artxibo eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzua, Liburutegi Zerbitzua eta, azkenik, Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa eta Jabetza Intelektualaren Erregistroa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, zerbitzu horien bitartez hurrengo bost programa nagusi hauek bultzatzen ditu:

- 1) Euskal Kultura Ondarea zaintzea eta zabaltzea.
- 2) Museoen Euskal Sistema garatzea.
- 3) Dokumentu Ondarea kudeatzea eta Euskadiko Artxiboen Sistema garatzea.
- 4) Liburutegien Euskal Sistema garatzea.
- 5) Zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea eta Euskal Autonomia Erkidegora jabetza intelektualaren alorrean transferituak izan diren zerbitzuak kudeatzea.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren jarduera etengabe aldatzen ari den gizarte baten bilakaeran kokatzen da, non beharrezkoa den, aldi berean, batetik herritarrei bitartekoak eskaintzea Liburutegien euskal sistemaren edo museo berritzaileen bidez hainbat alorretan sortzen ari diren berrikuntzak ezagutzeko, eta, bestetik, artxiboen sistemaren, museoen edo Kultura Ondarearen babesa eta sustapenaren bidez euskal gizarteak denboran zehar sortu dituen mezuak babestea.

Perspektiba bikoitz honekin batera, Zuzendaritzak nahi du beste bi lan-ildok zeharka dezatela Kultura Ondarearen defentsa: emakumeen presentzia sustatzea eta kultura-esparru honetan hizkuntzaren normalizazioa.

La Dirección de Patrimonio Cultural se organiza en cinco servicios: Centro de Patrimonio Cultural, Centro de Museos, Servicio de Archivos y Patrimonio Documental de Euskadi, Servicio de Bibliotecas y, por último, Asesoría Jurídica de Patrimonio Cultural y Registro de la Propiedad Intelectual.

La Dirección de Patrimonio Cultural impulsa los siguientes cinco grandes programas a través de esos servicios:

- 1) Proteger y difundir el Patrimonio Cultural Vasco.
- 2) Desarrollar el Sistema Vasco de Museos.
- 3) Gestionar el Patrimonio Documental y desarrollar el Sistema de Archivos de Euskadi.
- 4) Desarrollar el Sistema Vasco de Bibliotecas.
- 5) Proporcionar asesoramiento jurídico a la Dirección y gestionar los servicios transferidos a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de propiedad intelectual.

La actividad de la Dirección de Patrimonio Cultural se enmarca en el devenir de una sociedad en constante cambio en la que es necesario, al mismo tiempo, ofrecer a la ciudadanía los medios para conocer las novedades que se están produciendo en los diferentes campos a través del sistema vasco de Bibliotecas o de los museos más innovadores y preservar, a través del sistema de archivos, los museos o la defensa y promoción del Patrimonio Cultural los diferentes mensajes que la sociedad vasca ha ido generando a lo largo del tiempo.

Junto a esa doble perspectiva, la Dirección pretende que otras dos líneas de trabajo recorran la defensa del Patrimonio Cultural: el fomento de la presencia de la mujer y la normalización lingüística en este ámbito cultural.

Genero-berdintasunaren alorrean nahi da, alde batetik, kulturaren kudeaketaren alorretan emakumeen presentzia sustatzea, horretarako erabiliz diru-laguntzak eta emakumeen parte-hartze handiagoa gure jarduerak sortzen dituen erakunde eta komisioetan; eta, bestetik, emakumeen jarduera azpimarratzea zuzendaritza honek berezkoak dituen kultura-elementuen sorkuntzan.

Hizkuntzaren normalizazioari dagokionez, esparru batzuetan, adibidez Liburutegien sisteman, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna ematen da, baina beste batzuetan euskararen presentzia anekdotikoa da eta beharrezkoa da neurriak hartzea egunero erabilia izan dadin, erabilera hori salbuespena ez izateko.

Bost programa horietan ardaztuta eta 2019ko aurrekontuari begira Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren lehentasunezko helburu eta ekintzak zeintzuk diren zehaztuko dira memoria honetan.

**KULTURA ONDAREAREN ZENTROAK** helburu nagusi hauek ditu 2019rako:

- 1) Euskal Kultura Ondarearen Lege Aurreproiektuaren tramitazioa sustatzea.
- 2) Euskal Kultura Ondare Higiezina bere alor desberdinetan babesteko lanak sustatzea, izendapen kolektiboak lehenetsiz.
- 3) Kultura Ondarearen katalogoak eguneratzea eta berriak lantzea, kultura ondasunen tipologia ezberdinak kontuan hartuta.
- 4) Euskal Autonomia Erkidegoko kultura intereseko ondasunak zabaltzea, web orrien bitartez, Arkeoikuska bilduma argitara emanez eta Ondarearen Europako Jardunaldietan parte hartuz.
- 5) Donejakue Bidea kudeatzea eta sustatzea, eragile ezberdinek osatutako Mahai Sektorialak koordinatuz.
- 6) Euskal kultura ondare barruan babestuta dauden ondasunak balioan jartzeko proiektuak eta, halaber, euskal kultura ondarea babesteko ikerketa-lan aplikatuak diruz laguntzea.
- 7) Industria ondare higigarria ezagutaraztea eta IOHLEErekin (Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte) lankidetzan aritzea.
- 8) Kultura ondare immaterialaren azterketa sistematikoa bultzatzea eta ezagutaraztea.
- 9) Itsas-ondarearekin lotutako proiektuak diruz laguntzea.

La igualdad de género busca, por una parte, incentivar la presencia femenina en los ámbitos de gestión cultural, utilizando para ello las líneas de subvenciones y una mayor participación de las mujeres en los diferentes organismos y comisiones que genera nuestra actividad y, por otra, subrayar la actividad de la mujer en la generación de los elementos culturales propios de esta Dirección.

En lo que respecta a la normalización lingüística, en algunos campos, como el del sistema de Bibliotecas, la igualdad entre las dos lenguas oficiales es una realidad, no obstante, existen otros donde la presencia del euskera es meramente anecdótica y es necesario tomar medidas para su utilización de forma cotidiana y no excepcional.

En la presente memoria se concretan los objetivos y acciones prioritarias de la Dirección de Patrimonio Cultural en cada uno de esos cinco grandes programas para el ejercicio presupuestario 2019.

El CENTRO DE PATRIMONIO CULTURAL tiene los siguientes objetivos prioritarios para el año 2019:

- 1) Apoyar la tramitación del Anteproyecto de Ley de Patrimonio Cultural Vasco.
- 2) Impulsar la labor de protección del Patrimonio Cultural Inmueble Vasco en sus distintos ámbitos, priorizando las declaraciones colectivas.
- 3) Actualizar los catálogos de Patrimonio Cultural y elaborar nuevos, atendiendo a distintas tipologías de bienes culturales.
- 4) Difundir los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través de páginas web, de la publicación Arkeoikuska y de la participación en las Jornadas Europeas de Patrimonio.
- 5) Gestionar y promover el Camino de Santiago, coordinando Mesas Sectoriales con los diversos agentes implicados.
- 6) Subvencionar los proyectos de puesta en valor de bienes protegidos del patrimonio cultural vasco, así como los trabajos de investigación aplicada al ámbito de la protección del patrimonio cultural.
- 7) Difundir el patrimonio industrial mueble y colaborar con la AVPIOP (Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública).
- 8) Impulsar el análisis sistemático del patrimonio cultural inmaterial y su difusión.
- 9) Subvencionar proyectos relacionados con el patrimonio marítimo.

Kultura ondarearen babesari dagokionez, babes juridikoan arreta berezia jarriko da, izendapen kolektiboak bultzatuz. Zentzu horretan, EHUrekin lankidetzan jarraituko dugu, zehazki, Lurraldearen, Paisaiaren eta Ondarearen Katedrarekin, kultura ondarearen ezaugarri eta tipologiaren arabera, berau baloratu eta ebaluatzeko eredu sistematizatu berriak egiteko.

Halaber, Kostaldeko Donejakue Bidea (2015ean Munduko Ondarea izendatua) seinaleztatu, babestu eta dinamizatzeko ekintzekin jarraituko dugu, Eusko Jaurlaritzako turismo, segurtasun eta osasun arloekin, Aldundiekin, Udalekin eta Bidearen Lagunen Elkartekin lankidetzan.

Aldi berean, kultura ondareari buruzko inbentario eta katalogazio lanak eguneratu eta landuko dira. Ekimen hauen artean, euskal itsas ondarea, ondare immateriala eta Eusko Jaurlaritzaren titulartasuna duten ondasun higigarrien inbentarioa landuko dira.

Euskal Kultura Ondarearen buruzko 1990eko Legeak aurreikusitako betebeharraren arabera, %1 kulturala bezala ezagutzen dena, diru-laguntza agindu baten bidez sustatuko dira Euskal Kultura Ondarea babestu eta balioan jartzeko ekimenak, kultura ondasunen berrerrabilpena eta erabilera aldatetara zuzendutako proiektuak sustatuz eta finantzatuz.

Kultura Ondarearen zabalkundeari dagokionez, hurrengo esparru hauetan lan egingo da.

- Kultura Ondarearen Zentroaren webgunea eguneratuko da. Tratamendu berezia izango dute ondare higiezinari lotutako eduki digitalak. INTEGRA sistemaren atal batzuk herritarren eta erakundeen eskura jarriko dira.
- Euskal arkeologiaren alorrean erreferentea den Arkeoikuska izeneko argitalpena landu eta argitara emango da, bertan Euskal Autonomia Erkidegoko indusketa arkeologikoak zuzendu dituzten ikerlarien artikuluak bilduko direlarik.
- Kultura Ondare Saria izeneko sariaren bosgarren edizioa jarriko da abian, euskal kultura ondarea hezkuntza sisteman ezagutu eta zabaltze aldera.

Saharako herriari arkeologia arloan orain arte eman zaion laguntza zientifikoari eutsiko zaio, Eusko Jaurlaritzak Saharako herriarekin duen lankidetzatza politika zabalago batean kokatzen den laguntza.

CARP (Europako Labar Artearen Bideak) elkartearen kide izaten jarraituko dugu, nazioarte mailako eta Euskadiri dagozkion ibilbideen sustapenerako proiektu berriekin, bai eta ibilbide kulturei lotutako zenbait foroetan parte hartuz ere.

En materia de protección del patrimonio cultural, se prestará especial atención a la protección jurídica, potenciando declaraciones conjuntas. En este sentido, se continuará la colaboración con la UPV/EHU, en concreto con la Cátedra del Territorio, Paisaje y Patrimonio, para elaborar, en función de las características y tipologías del patrimonio cultural, nuevos modelos sistematizados de valoración y evaluación del mismo.

Asimismo, se proseguirá con las acciones de señalización, protección y dinamización del Camino de Santiago de la costa, declarado en el 2015 Patrimonio Mundial, en colaboración con las áreas de turismo, seguridad y salud del Gobierno Vasco, las Diputaciones, los Ayuntamientos y con las Asociaciones de Amigos del Camino.

Paralelamente, se actualizarán y elaborarán inventarios y trabajos de catalogación sobre patrimonio cultural. Entre estas iniciativas, se trabajará en el patrimonio marítimo vasco, en el patrimonio inmaterial y en la elaboración del inventario de los bienes muebles de titularidad del Gobierno Vasco.

En aplicación de la obligación prevista en la Ley de Patrimonio Cultural Vasco de 1990 conocida como uno por ciento cultural se impulsarán, a través de la orden de subvención correspondiente, medidas de apoyo a la protección y puesta en valor del Patrimonio Cultural Vasco, promoviendo y financiando proyectos destinados, a impulsar la reutilización y cambios de uso de bienes culturales.

En referencia a la difusión del Patrimonio Cultural, se incidirá en los siguientes ámbitos:

- Se actualizará la Web del Centro de Patrimonio Cultural. Tendrá un especial tratamiento todo lo relativo a contenidos digitales de bienes inmuebles. Algunas partes del sistema de gestión INTEGRA se pondrán a disposición del público y de otras instituciones.
- Se preparará y editará la publicación Arkeoikuska, referente en el campo de la arqueología vasca, en la que se reúnen los artículos de las personas investigadoras que han dirigido las excavaciones arqueológicas en la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Se pondrá en marcha la quinta edición del premio Kultura Ondare Saria, orientado al conocimiento y difusión del patrimonio cultural vasco en el sistema educativo.

Se renovará el proyecto de apoyo científico que a nivel arqueológico se viene prestando al pueblo saharauí, que se enmarca en una política más amplia de colaboración del Gobierno Vasco con el pueblo saharauí.

Se continuará en la Asociación CARP (Caminos de Arte Rupestre Europeo), con nuevos proyectos de carácter internacional y de promoción de las rutas correspondientes a Euskadi, así como en la participación de diversos foros relacionados con itinerarios culturales.

Kultura ondarearen babesaren barruan sartzen diren ikerketa aplikatuko proiektuak diruz laguntzeko berariazko deialdiarekin jarraituko dugu.

MUSEOEN ZENTROA dela eta, helburu nagusi hauek ditugu 2019. urteari begira:

- 1) Euskadiko erreferentziatzeko museoetan parte hartu eta laguntzea.
- 2) Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan integratutako museoen jarduerak burutzen laguntzea.
- 3) EMSIME-Euskadiko Museoen Sistema Informatikoa/ Sistema Informático de Museos de Euskadi izeneko plataforman eta kudeaketa-tresnan museo eta bilduma berriak sartzea.
- 4) Museo Etnografiko txikien sarea sortzeko urratsak ematea.
- 5) Eusko Jaurlearitzaren arte-lanen bildumaren museo katalogoa burutzea.

Parte hartuko dugu Guggenheim-Bilbao Museoan, Bilboko Arte Ederren Museoan, Gasteizko Artium Museoan, eta Cristóbal Balenciaga Museoan. Halaber, Donostiako San Telmo Museoarekin eta Euskadi mailan interes orokorra duten bestelako museoekin lan egingo da.

Indartu egingo da 2019. urtean zehar Euskadiko museoek egiten dituzten ekintzak garatu eta zabaltzeko asmoz urtero ateratzen den diru-laguntza deialdia.

EMSIME plataforman museo eta bilduma berriak sartuko dira 2019. urtean zehar. Horrela, gero eta kultura erakunde gehiago izango dira beren bildumei eta jardueri buruz informazioa nahiz ezagutza partekatuko dituztenak.

**EUSKADIKO ARTXIBO ETA DOKUMENTU ONDAREAREN ZERBITZUAK** sei helburu estrategikotan ardatzuko du bere lana:

- 1) Dokumentuen Kudeaketa Integralaren eta Euskadiko Artxiboen Lege Aurreproiektuaren tramitazioarekin jarraitzea, Eusko Legebiltzarrak onar dezan.
- 2) Euskadiko Artxiboen Sistemaren atari berria garatzea, erabiltzaileen beharretara gehiago egokituko den bilaketa motor berria sortuz, dokumentu formatuen (irudia eta soinua) eskaintza zabalduz eta Sistemaren artxiboen parte hartzea bultzatuz.
- 3) Euskadiko Dokumentu Ondarea eskuratzea, berreskuratzea, deskribatzea, digitalizatzea eta zabaltzea Euskadiko artxiboen atarian.
- 4) Artxiboen alorrean lankidetzat tresnak garatzea eta indartzea: balorazio eta espurgo batzordeak, ondare digitalaren esparruko erakundeekin hitzarmenak eta lanbide heziketarako programak.

Se continuará con la convocatoria específica para subvencionar proyectos de investigación aplicada en el ámbito de la protección del patrimonio cultural.

En lo que respecta al CENTRO DE MUSEOS son objetivos prioritarios para el año 2019 los siguientes:

- 1) Participar y apoyar de manera especial a los museos de referencia de Euskadi.
- 2) Apoyar las actividades de los museos integrados en el Registro de Museos y Colecciones de Euskadi.
- 3) Integrar en la plataforma y herramienta de gestión EMSIME-Euskadiko Museoen Sistema Informatikoa/ Sistema Informático de Museos de Euskadi a nuevos museos y colecciones.
- 4) Dar pasos para crear una Red de pequeños Museos Etnográficos.
- 5) Realizar el catálogo museológico de la colección de obras de arte del Gobierno Vasco.

Se participará en el Museo Guggenheim-Bilbao, Museo de Bellas Artes de Bilbao, Museo Artium de Vitoria-Gasteiz y Museo Cristóbal Balenciaga. Asimismo, se colaborará con el Museo San Telmo de Donostia-San Sebastián y con otros museos de interés general a nivel de Euskadi.

Se fortalecerá durante el año 2019 el programa anual de subvenciones destinadas al desarrollo y difusión de las actividades promovidas por los museos de Euskadi.

A lo largo de 2019 se incorporarán nuevos museos y colecciones a la plataforma EMSIME, incrementándose de este modo el número de instituciones culturales que comparten información y conocimiento sobre su colección y actividades.

**EL SERVICIO DE ARCHIVOS Y PATRIMONIO DOCUMENTAL DE EUSKADI** va a centrar su actividad en seis objetivos estratégicos:

- 1) Continuar con la tramitación del Anteproyecto de Ley de Gestión Documental Integral y de Archivos de Euskadi para su aprobación por el Parlamento Vasco.
- 2) Desarrollar el nuevo portal del Sistema de Archivos de Euskadi, incorporando un nuevo motor de búsqueda más acorde con las necesidades de los usuarios, ampliando la oferta de formatos documentales (imagen y sonido) e involucrando a los archivos del Sistema.
- 3) Adquirir, recuperar, describir, digitalizar y difundir, en el portal del Sistema de Archivos de Euskadi, el Patrimonio Documental de Euskadi.
- 4) Desarrollar y fortalecer los instrumentos de cooperación en materia de archivos: comisiones de valoración y expurgo, convenios con instituciones en materia de patrimonio digital y programas de formación profesional.

5) Euskadiko Artxibo Historikoaren kulturaren eta hezkuntzaren zabalkunderako programa garatzea, herritarrei zuzendutako ikastaro, hezkuntza jarduera eta tailerren bitartez.

6) Euskadiko Artxiboen Sistemaren funtzionamendua bultzatzea, Euskadiko Artxibo Historikoaren bitartez, Euskadiko ondare dokumentala zaintzen duten artxiboak deskribapen eta zabalpen programekin lotuz Interneten.

Artxibo historiko publiko eta pribatuetako funtsak berreskuratzen, identifikatzen eta antolatzen jarraituko dugu, funtsen kontserbazioan eta atzipena bermatzeko ezinbestekoa dena, laguntza deialdien eta erakunde garrantzitsuenekin egindako berriazko hitzarmenen bitartez, artxibo publiko eta pribatuen zerbitzuei laguntza tekniko eta ekonomikoa emateko, dokumentu-funtsak digitalizatu eta zabaltzeko, eta artxiboak eta memoria herritarrei hurbildu asmoz programak garatzeko.

Udal artxiboen alorrean, dokumentu serieak identifikatzeko eta baloratzeko lana bukatuko da, ondoren espurgatu ahal izateko eta, horrekin batera, erabilerarako eskuliburua argitaratuko da.

Artxibo atariaren ("Badator" eta "Dokuklik") bertsio berria martxan jarriko da 2019an, bilaketa geografikorako tresnak gehitzen dituena. Tresna horien emaitzek herritarren atzipena aberastuko dute, Dokumentu Ondarea Kultura Ondarearekin eta beste hezkuntza eta gizarte-baliabideekin integratuko dutelarik. Honela, Artxiboen presentzia eta antolatzen diren ekintzen berri gizarte sareetan zabaltzea bultzatu nahi da.

Euskadiko Artxibo Historikoak 2019an hiritarrei eta kultura nahiz artxibo ondarearen kudeatzaileei zuzendutako hezkuntza eta kultur zabalkunderako programa garatuko du. Programa horretan tailerrak, ikastaroak, eztabaidarako jardunaldiak, material didaktikoak, hitzaldi zikloak eta hiritarrek parte-hartzeko egitarauak eskainiko dira.

LIBURUTEGI ZERBITZUAK helburu nagusi hauek ditu 2019. urteari begira:

- 1) Euskadiko liburutegi sarea zabaltzen jarraitzea.
- 2) Euskadiko Liburutegi Digitala martxan jartzea.
- 3) Mailegu digitalean formatu berriak sartzea.
- 4) Sarean egindako lankidetzaren bidez eta tresna telematiko berrien bitartez, euskal bibliografia landu eta euskal liburu, diska eta ikusentzunezkoen ekoizpenaren digitalizazioa bultzatzea.
- 5) Interneten sortu eta zabaltzen den euskal ondare digitala zaintzen lankidetzan jardutea.
- 6) Irakurketaren sustapena bultzatzea.

5) Desarrollar el programa de difusión cultural y educativa del Archivo Histórico de Euskadi, a través de cursos, actividades educativas y talleres dirigidos a la ciudadanía.

6) Impulsar el funcionamiento del Sistema de Archivos de Euskadi, a través del Archivo Histórico de Euskadi, asociando los archivos que albergan patrimonio documental de Euskadi a los programas de descripción y de difusión en Internet.

Se continuará con la recuperación, identificación y organización de fondos de archivos históricos, públicos y privados, tarea imprescindible para garantizar su conservación y el acceso a los mismos, a través tanto de convocatorias de ayudas como de convenios específicos con las entidades más relevantes, al objeto de brindar apoyo técnico y económico a los servicios de archivos públicos y privados, de digitalizar y difundir sus fondos documentales y de desarrollar programas que acerquen los archivos y la memoria a la ciudadanía.

En el ámbito de los archivos municipales se concluirá el trabajo de identificación y valoración de series documentales para su posterior expurgo y se publicará el manual para su aplicación.

En 2019 se desplegará una nueva versión del portal de Archivos ("Badator" y "Dokuklik") con la incorporación de herramientas de búsqueda geográfica que contextualicen el Patrimonio Documental con el Patrimonio Cultural y otros recursos educativos y sociales, de manera que se enriquezca el acceso de la ciudadanía al mismo. Se pretende con ello impulsar la presencia del Archivo y sus actividades en las redes sociales.

El Archivo Histórico de Euskadi desarrollará en 2019 un programa educativo y de difusión cultural dirigido a la ciudadanía y a los gestores de patrimonio cultural y de los servicios de archivo, a través de talleres, cursos, jornadas de debate, creación de materiales didácticos, ciclos de conferencias y programas de participación ciudadana.

EL SERVICIO DE BIBLIOTECAS tiene los siguientes objetivos prioritarios para el ejercicio 2019:

- 1) Continuar la ampliación de la red de bibliotecas de Euskadi.
- 2) Poner en marcha la Biblioteca Digital de Euskadi.
- 3) Introducir nuevos formatos de contenidos en el préstamo digital.
- 4) Impulsar, a través del trabajo cooperativo en red y de nuevas herramientas telemáticas, la elaboración de la bibliografía vasca y la digitalización de la producción editorial, fonográfica y audiovisual vasca.
- 5) Cooperar en la preservación del patrimonio digital vasco creado y difundido en Internet.
- 6) Impulsar el fomento de la lectura.

Udal liburutegi guztien integrazioa Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarean aurrerapen handia izan da liburutegi zerbitzuen bateratze prozesuan Euskadin. Erakundeetako liburutegiak liburutegi sarean sartzea landuko da 2019an zehar.

Eliburutegia, Euskadiko liburutegi publikoen mailegu digitalerako plataforma, martxan jartzean hiritarren behar berri bati eman zaio erantzuna. Plataformak zerbitzu berriak ahalbidetzen ditu eta liburutegien presentzia sustatzen du alor digitalean. Liburuez gain, audioliburuak, zinea eta telebista serieen eskaintza handituko dira 2019an mailegu digitalaren barruan.

Euskadiko Liburutegi Digitala liburutegi zerbitzuren beste apustu garrantzitsua izango da. Erakunde berri horren bitartez, euskal bibliografiaren informazioari buruzko bilketa sistematikoa eta zabalkundea bultzatuko da, hau da, lege gordailua duen euskal kultura ekoizpenari buruzkoa (argitalpen inprimatua, fonografikoa eta audiodisuala). Halaber, euskal bibliografiaren digitalizazio plana ere garatuko da, euskal bibliografiaren kontserbazioa bermatzeko eta era berean aipatutako bibliografia hiritarren esku jartzeko.

Era berean, autoritate elebidunen datu basean termino berriak balioztatzen jarraituko da, baita lege gordailuaren bitartez jasotzen diren erregistro bibliografikoak katalogatzen ere.

Bestalde, Interneten ekoizten eta zabaltzen diren euskal eduki eta argitalpenen eskurapen eta bilketa lana egiten jarraituko dugu, Ondarenet proiektuaren bidez.

Ildo berean, Eusko Jaurlaritzak sortu duen gordailu digitalean dauden edukiak areagotuko dira. Gordailua erreferentziako euskal erakunde kulturalen kopia digitalak zerbitzari seguru batean behar bezala kontserbatzeko sortu da.

Irakurketa sustapenari dagokionez, Euskadiko udal liburutegi sareak sustatzen dituen irakurzaletasunaren aldeko proiektuei ematen zaien laguntza mantenduko da, eta irakurketa klub birtualarekin jarraituko da, euskarazko idazlanen irakurketa bultzatzeko asmoz eta horren inguruko irakurle komunitate bat eratzeko asmoz.

Bestalde, gazte eta haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko ematen den diru-laguntzarekin batera, udal liburutegietarako funts bibliografikoak eskuratzeko eta udal liburutegien ekipamendu informatikoa eskuratzeko diru-laguntzak mantenduko dira ere.

**KULTURA ONDAREAREN AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ETA JABETZA INTELEKTUALAREN ERREGISTROKO ZERBITZUAK** bi jarduera-eremu nagusi ditu: batetik, Euskal Autonomia Erkidegora jabetza intelektualaren alorrean transferituak izan diren zerbitzuak kudeatzea eta, bestetik, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea.

La integración de todas las bibliotecas municipales en la Red de Lectura Pública de Euskadi ha supuesto un avance muy significativo en el proceso de unificación de los servicios bibliotecarios en Euskadi. A lo largo del 2019 se trabajará la incorporación de bibliotecas institucionales.

La puesta en marcha de eLiburutegia, la plataforma de las bibliotecas públicas vascas que oferta el préstamo digital, ha dado respuesta a una necesidad demandada por la ciudadanía. La plataforma permite articular nuevos servicios y fomentar la presencia de las bibliotecas en el ámbito digital. En el 2019 se ampliará la oferta de libros, audiolibros, cine y series de televisión dentro del préstamo digital.

La Biblioteca Digital de Euskadi será la otra apuesta importante del servicio de bibliotecas. A través de este organismo se impulsará la recopilación sistemática y difusión de la información relativa a la bibliografía vasca, esto es, de la producción cultural vasca sujeta a depósito legal (edición impresa, fonográfica y audiovisual). También desarrollará un plan de digitalización de dicha bibliografía vasca, al objeto de favorecer su conservación y acceso por parte de la ciudadanía.

Asimismo, se continuará con la validación de nuevos términos en la base de datos de autoridades bilingües y con la catalogación de los registros bibliográficos recibidos a través del depósito legal.

Por otra parte, se proseguirá con la labor de captura y recopilación de los contenidos y publicaciones vascas producidos y difundidos en Internet, a través del proyecto Ondarenet.

De igual modo, se incrementarán los contenidos alojados en el repositorio digital, creado por el Gobierno Vasco al objeto de garantizar la adecuada conservación en un servidor seguro de las copias digitales de las instituciones culturales de referencia del país.

En cuanto al fomento de la lectura, se mantendrán las ayudas a los proyectos de animación de la lectura pública de la red municipal de bibliotecas de Euskadi, y se dará continuidad al club de lectura virtual, con el objeto de dinamizar la lectura de obras en euskera y de crear una comunidad de lectores articulados en torno a dicho club.

Por otro lado, junto con la convocatoria de ayudas destinadas a la promoción de la lectura entre jóvenes y niños y niñas, se mantendrán las convocatorias de subvenciones destinadas a la adquisición de fondos bibliográficos para las bibliotecas municipales y al equipamiento informático de dichas bibliotecas.

EL SERVICIO DE ASESORÍA JURÍDICA DE PATRIMONIO CULTURAL Y REGISTRO DE LA PROPIEDAD INTELECTUAL tiene dos grandes ámbitos de actuación: por un lado, gestionar los servicios transferidos a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de propiedad intelectual y, por otro, proporcionar el asesoramiento jurídico a la Dirección de Patrimonio Cultural.



Jabetza Intelektualaren Erregistroari dagokionez ondoren zehaztuko diren jarduerak burutuko dira: inskripzio eskaera guztiak tramitatzea; gordailutako dokumentuen eta materialen artxiboa antolatzea eta zaintzea; eta indarrean dagoen legediak aurreikusten dituen gainerako jarduerak betetzea.

Jabetza Intelektualaren Erregistroari dagozkion eskaera-ereduak eta dokumentazioa hobetuko dira 2019. urtean zehar, eta Euskadi.eus barruan sartuko da erregistroan tramitazio elektronikoa egin ahal izateko aukera.

Ustiapen eskubideak kudeatzen dituzten erakundeei dagokionez, erakunde hauen baimen eskaria tramitatuko da, beren estatutuak aztertu eta onetsiko dira eta araudia behar bezala betetzen dutela ziurtatzeko jarraipen lanak egingo dira.

Aholkularitza Juridikoari dagokionez, Zuzendaritzak sustatutako lege aurreproiektuak eta garatzeko araudiak idazten parte hartuko dugu, kultura-ondasunen babesa arautzen duten dekretuak idatziko ditugu, diru-laguntzen deialdiak eta ebazpenak aztertuko ditugu, Zuzendaritzako zerbitzu ezberdinek eskatutako txosten juridikoak egingo ditugu, eta zerbitzuaren jardura eremuan sartzen diren bestelako kontsulta juridikoei emango diegu erantzuna.

En lo que se refiere al Registro de la Propiedad Intelectual, se llevarán a cabo las siguientes actuaciones: tramitar las solicitudes de inscripción; organizar y custodiar el archivo de los documentos y materiales depositados; y las demás actuaciones encomendadas por la normativa en vigor.

A lo largo de 2019 se mejorarán los modelos de solicitud y la documentación relativa al Registro de la Propiedad Intelectual, que se incluirán en Euskadi.eus, integrándose el acceso al Registro Telemático.

En el ámbito de las entidades de gestión de derechos de explotación, se tramitarán las autorizaciones de tales entidades, se analizarán y aprobarán sus estatutos y se llevará a cabo la vigilancia del cumplimiento de la normativa por las mismas.

En lo que respecta a la Asesoría Jurídica, se colaborará en la redacción de los anteproyectos de ley y del desarrollo normativo promovido por la Dirección, se redactarán los decretos y órdenes que regulan la protección de los bienes culturales, se revisarán las normas reguladoras de las ayudas y la resolución de las mismas, se elaborarán los informes jurídicos requeridos por los distintos servicios de la Dirección, y se atenderán las consultas jurídicas relacionadas con su ámbito de actuación.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>1. EUSKAL KULTURA ONDAREA BALIOZTATZEA ETA ZABALTZEA</b></p> <p>1. Kultura ondasunen babes juridikoa.</p> <p>1. Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistro Orokorrean sartu beharreko ondasunak. <b>60</b></p> <p>2. Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartu beharreko ondasunak. <b>25</b></p> <p>3. Ingurumen-inpaktuak aztertzea. <b>90</b></p> <p>4. Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenak eta Plan Bereziak. <b>20</b></p> <p>5. Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen ondorioz sortutako txostenak. <b>12</b></p> <p>6. Material arkeologikoak tokiz aldatzea. <b>15</b></p> <p>7. Material arkeologikoen kudeaketarako araudia garatzea. <b>1</b></p> <p>2. Kultura ondarea aztertzea eta inbentariatzea.</p> <p>1. Ondare higiezinaren eta higigarriaren inbentarioak eguneratzea eta idaztea. <b>400</b></p>		<p><b>1. PUESTA EN VALOR Y DIFUSIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL VASCO</b></p> <p>1. Protección jurídica de los bienes culturales.</p> <p>1. Bienes a incluir en el Registro General de Bienes Culturales Calificados.</p> <p>2. Bienes a incluir en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.</p> <p>3. Análisis impactos ambientales.</p> <p>4. Informes Comisión Ordenación Territorio y Planes Especiales.</p> <p>5. Informes derivados de la Ley de Suelo y Urbanismo.</p> <p>6. Traslados de materiales arqueológicos.</p> <p>7. Desarrollo de una normativa sobre gestión de materiales arqueológicos.</p> <p>2. Estudios e inventarios sobre el patrimonio cultural.</p> <p>1. Actualizar los inventarios y redactar nuevos inventarios (mueble e inmueble).</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Euskal kultura ondarea babesteko ikerketa-lan aplikatuak egiteko diru-laguntzak.	12	2. Subvenciones para la realización de trabajos de investigación aplicada al ámbito de la protección del patrimonio cultural vasco.
3. Kultura Ondarea zabaltzea eta balioan jartzea.		3. Difusión y puesta en valor del Patrimonio Cultural.
1. Web-edukiak berritu eta eguneratzea.	1	1. Renovar y actualizar los contenidos Web.
2. Kultura ondarearen gaineko informazioa eta arreta ematea.	300	2. Informar y atender consultas sobre patrimonio cultural.
3. Kulturarako %1eko diru-laguntza Agindua betetzea.	12	3. Aplicar la Orden subvencional del 1% Cultural.
4. Kultura Ondare Saria.	3	4. Premio Patrimonio Cultural.
5. Ondarearen Europako Jardunaldiak koordinatzea.	1	5. Coordinar las Jornadas Europeas de Patrimonio.
6. Konsoni Lantegira bisita gidatuen programa.	24	6. Programa de visitas guiadas a Konsoni Lantegia.
7. Itsas kultura ondarea balioztatzeke diru-laguntzak.	15	7. Subvenciones para la puesta en valor del patrimonio cultural marítimo.
4. Finantziarioa eta azpiegitura kulturaletarako eta kultura ondarea balioztatzeke diru-laguntzak:		4. Financiación y subvenciones para infraestructuras culturales y puesta en valor del patrimonio cultural:
1. Gesaltza-Añana: Gesaltza-Añanako gatz-haranaren paisaia eta erabilgarritasuna berreskuratzeko Plan Zuzentzailea burutzea.	1	1. Salinas de Añana: Ejecutar el Plan Director para la recuperación paisajística y funcional del Valle Salado de Salinas de Añana.
2. Santa Maria Katedrala: Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedralaren Plan Zuzentzailea burutzea.	1	2. Catedral Santa María: Ejecutar el Plan Director de la Catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz.
3. Euskal-Saharar Elkartea: herri sahararren arkeologia-proiektua laguntzea.	1	3. Asociación Vasco-Saharai: Apoyar el proyecto arqueológico del pueblo saharai.
4. Labayru Fundazioa: Etniker Euskalerrria Taldeen Euskadiko Atlas Etnografikoa egiten laguntzea.	1	4. Fundación Labayru: Elaborar el Atlas Etnográfico de Euskadi de los Grupos Etniker Euskalerrria.
5. Barandiaran Fundazioa: Urteko programa.	1	5. Fundación Barandiarán: Programa anual.
<b>2. EUSKADIKO MUSEOEN SISTEMA GARATZEA</b>		<b>2. DESARROLLO DEL SISTEMA DE MUSEOS DE EUSKADI</b>
1. Museoen Erregistroa mantentzea.	1	1. Mantenimiento del Registro de Museos.
2. Museoen eta bilduma museografikoen sare informatikoa.	1	2. Red informática de museos y colecciones museográficas.
1. Museo berriak integratzea.	2	1. Integrar nuevos museos.
2. Hizkuntza normalizatua koordinatzea eta kudeatzea.	1	2. Coordinar y gestionar el lenguaje normalizado.
3. Egileen datu-basea koordinatzea eta mantentzea.	1	3. Coordinar y mantener la base de datos de autores.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
4. Katalogo kolektiboa koordinatzea eta mantentzea.	1	4. Coordinar y mantener el catálogo colectivo.
5. Museo eta bilduma integratuetako langileak prestatzea.	1	5. Formar al personal de los museos y colecciones integrados.
6. Museoen jardueren agenda koordinatzea eta hedatzea.	1	6. Coordinar y difundir la agenda de actividades de los museos.
7. Eusko Jaurlaritzaren arte-lanak katalogatzea eta kudeaketa egitasmoaren azterketa egitea.	300	7. Catalogar las obras de arte del Gobierno Vasco y realizar el estudio del proyecto de gestión.
3. Museoei eta bildumei zuzendutako diru-laguntzak.	43	3. Subvenciones destinadas a museos y colecciones.
1. Bilduma kudeatzea eta berau ezagutzeko sarbidea hobetzea.	10	1. Gestionar la colección y mejorar el acceso al conocimiento de la misma.
2. Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.	12	2. Renovar la exposición permanente y realizar exposiciones temporales.
3. Didaktika eta hedapen-jarduerak egitea, museo edo bildumaren izaeraren edo espezialitatearen arabera.	16	3. Realizar actividades didácticas y de difusión acordes con su naturaleza o especialidad.
4. Museoaren jardun-eremuarekin zerikusia daukan ezagutza sortzea.	2	4. Generar conocimiento relacionado con su ámbito de actuación.
5. Kudeaketa hobetzea eta berrikuntza bultzatzea.	3	5. Mejorar la gestión e impulsar la innovación.
4. EAEko museoetan parte hartzea.		4. Participación en los museos de la CAE.
1. Bilboko Guggenheim.	2	1. Guggenheim de Bilbao.
2. Bilboko Arte Ederrak.	1	2. Bellas Artes de Bilbao.
3. Gasteizko Artium.	1	3. Artium de Vitoria.
4. Cristobal Balenciaga.	1	4. Cristóbal Balenciaga.
<b>3. ARTXIBOEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA</b>		<b>3. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE ARCHIVOS</b>
1. Legebiltzarrera bidaltzea Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Artxiboen Legearen Aurreproiektua.	1	1. Remisión al Parlamento del Anteproyecto de Gestión Documental Integral y Archivos.
2. Artxiboen Euskal Sistema garatzea.		2. Desarrollo del Sistema Vasco de Archivos.
1. Interes bereziko artxiboak dituzten erakundeei zuzendutako diru-laguntzak.	10	1. Subvenciones a organizaciones titulares de archivos de interés especial.
2. Artxiboen Sistema koordinatzea eta bertan artxibo pribatuak integratzea.	3000	2. Actualización del censo de fondos y servicios de archivo y validación de fichas de censo.
3. Artxibo historikoetako funtsak antolatzea.	6	3. Organizar los fondos de archivos históricos.
4. Dokumentu-serieak baloratzea eta identifikatzea.	50	4. Valorar e identificar las series documentales.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
3. Web-orria garatzea.	1	3. Desarrollo del portal web.
1. Badator-Dokuklik bilatzailea garatzea eta gizarteratzea.		1. Desarrollar y socializar el buscador Badator-Dokuklik.
2. Dokumentu-funtsak estandarizatzea eta maila askotan deskribatzea.	200	2. Estandarizar y describir los fondos documentales en multiniveles.
3. Heziketarako eta kultura zabalpenerako edukiak sortzea.	1	3. Crear los contenidos educativos y de difusión cultural.
4. Funts historikoak, publiko eta pribatuak, digitalizatzea eta irudi digitalak Dokukliken sartzea.	150.000	4. Digitalizar los fondos históricos, públicos y privados e incorporar las nuevas imágenes digitales a Dokuklik.
5. Artxibategi-funtsak web atarian integratzea.	20	5. Integrar los nuevos fondos de archivo en el portal web.
4. Diru-laguntzak toki-entitateei, beren artxibo-sistemak martxan jartzeko edo sendotzeko.	74	4. Subvenciones a entidades locales para poner en funcionamiento o consolidar un sistema de archivo propio.
1. Udal artxibo-sistema sortzea edo hobetzea.	46	1. Crear o mejorar el sistema de archivo municipal.
2. Dokumentu-funtsak baloratzea.	3	2. Valorar los fondos documentales.
3. Artxibo-funtsak digitalizatzea.	23	3. Digitalizar los documentos de archivo.
4. Kultur zabalkunderako programak.	3	4. Programas de difusión cultural.
5. Artxibo zerbitzu mankomunatuaren mantentze-lanak.	7	5. Mantenimiento de servicios de archivo mancomunados.
5. Publikoak ez diren artxiboak antolatzeke, zabaltzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak.	14	5. Subvenciones para la organización, difusión y digitalización de archivos no públicos.
1. Artxibo-funtsak antolatzea eta artxibo-tratamendua hobetzea.	10	1. Organizar los fondos de archivo y mejorar su tratamiento archivístico.
2. Informazioa zabaltzea eta Badator informazio-zerbitzuan integratzea.	8	2. Difundir la información e integrarlo en el sistema de información Badator.
3. Artxibo-funtsak digitalizatzea.	10	3. Digitalizar los fondos de archivo.
6. Zabalkundea, kultur ekintza eta prestakuntza.		6. Difusión, acción cultural y formación.
1. Prestakuntza-ikastaroak, ALDEE elkartearekin elkarlanean (Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalek Elkartea).	1	1. Cursos de formación en colaboración con ALDEE (Asociación Vasca de Profesionales de Archivos, Bibliotecas y Centro de Documentación).
2. Artxibategien erabilera eta ondare dokumentala eskuratzea sustatzeko ikastaroak eta kultur ekintzak.	6	2. Cursos y acciones culturales de fomento del uso de los archivos y del acceso al patrimonio documental.
3. Erakusketak.	3	3. Exposiciones.
<b>4. LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA</b>		<b>4. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE BIBLIOTECAS</b>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Liburutegietako liburu-funtsak berritzeko edota handitzeko diru-laguntzak.		1. Subvenciones para la dotación y/o renovación de fondos de bibliotecas.
1. Liburutegi eratu berrietarako dokumentu-sortak eskuratzea.	1	1. Adquirir lotes fundacionales para bibliotecas de nueva creación.
2. Lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko izenburuak eskuratzea.	180	2. Adquirir títulos destinados a la renovación del fondo de bibliotecas ya existentes.
2. Mailegu digitalaren zerbitzua.		2. Servicio de préstamo digital.
1. Eduki digitalak erostea eta berritzea mailegu digitalerako.	30.000	1. Comprar y renovar contenidos digitales para el préstamo digital.
3. Irakurzaletasuna eta liburutegi publikoen erabilera sustatzeko diru-laguntzak.		3. Subvenciones para la promoción de la lectura y del uso de los servicios de las bibliotecas públicas.
1. Profesionalen prestakuntza espezifikoak.	1	1. Formación específica de profesionales.
2. Irakurketa-jarduera osagarriak.	155	2. Actividades de lectura complementarias.
3. Liburuaren inguruko erakusketa bibliografikoak, solasaldiak eta abar antolatzea.	15	3. Organizar exposiciones bibliográficas del libro, coloquios, etc.
4. Literatura-lehiaketak antolatzea.	28	4. Organizar concursos de literatura.
5. Herritarrak liburueta eta liburutegietara hurbiltzeko kanpainak.	10	5. Campañas de atracción al libro y a las bibliotecas.
4. Liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko diru-laguntzak.		4. Subvenciones para la implantación y/o desarrollo de las nuevas tecnologías en las bibliotecas públicas.
1. Informazio prozesuetako ekipoak berritzea.	254	1. Renovar equipos para procesos de información.
2. Eskanerrak, irakurgailu optikoak eta abar berritzea.	460	2. Renovar escáneres, lectores ópticos, etc.
5. Liburutegi publikoen arteko on-line sarea: mantentzea eta koordinatzea.		5. Red on line entre las bibliotecas públicas: mantenimiento y coordinación.
1. Datu-base bibliografikoak sortzea: erregistro berriak.	29.000	1. Generar y crear bases de datos bibliográficas: nuevos registros.
2. Autoritateen erregistroak lantzea eta mantentzea.	35.000	2. Elaborar y mantener los registros de autoridades.
3. Orientazio profesional eta teknikoak liburuzainei (ikastaroak).	3	3. Orientación profesional y técnica a los bibliotecarios (cursos).
4. Etengabeko laguntza profesionali.	15.000	4. Asistencia continuada a las y los profesionales.
6. Euskararen erabilera normalizatzea liburutegien eremuan.		6. Normalización del uso del euskera en el ámbito bibliotecario.
1. Autoritate elebidunen termino berriak xahutu eta gehitzea.	20.000	1. Depurar e incorporar nuevos términos de autoridades bilingües.
7. Lege-Gordailua kudeatzea.		7. Gestión del Depósito Legal.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Liburutegien erregistroak katalogatzea.	7.000	1. Catalogar registros de bibliotecas.
2. Euskal Bibliografia.	1.500	2. Bibliografía Vasca.
8. Euskadiko ondare digitala.		8. Patrimonio digital de Euskadi.
1. Euskal bibliografia digitalizatzea.	3.000	1. Digitalizar la bibliografía vasca.
2. Euskadiko Liburutegi Digitala ezartzea.	3.500	2. Implementar la Biblioteca Digital de Euskadi.
<b>5. ZUZENDARITZARI AHOLKULARITZA JURIDIKOA EMATEA ETA JABETZA INTELEKTUALAREN ERREGISTROA KUDEATZEA</b>		<b>5. ASESORAMIENTO JURÍDICO A LA DIRECCIÓN Y GESTIÓN DEL REGISTRO DE LA PROPIEDAD INTELECTUAL</b>
1. Araudi-esparrua berraztertzea eta garatzea.		1. Revisar el marco normativo y desarrollo del mismo.
1. Dokumentu-Kudeaketa Integralaren eta Artxiboen Legearen Aurreproiektua.	1	1. Anteproyecto de Ley de Gestión Documental Integral y Archivos de Euskadi.
2. Lege-gordailuari buruzko erregelamendua.	1	2. Reglamento de Depósito Legal.
2. Diru-laguntzen deialdi eta ebazpenak aztertzea.		2. Revisar todas las convocatorias y resoluciones de subvenciones.
1. "Kultura Ondarea" saria.	1	1. Premio "Kultura Ondarea".
2. Euskal Kultura Ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzak.	1	2. Subvenciones para la realización de trabajos de investigación aplicada al ámbito de la protección del Patrimonio Cultural Vasco.
3. Euskal Kultura Ondarea balioztatu eta zabaltzeko diru-laguntzak.	1	3. Subvenciones para la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco.
4. Itsas kultura ondarea balioztatzeko diru-laguntzak.	1	4. Subvenciones para la puesta en valor del patrimonio cultural marítimo.
5. Museoei eta bildumei zuzendutako diru-laguntzak.	1	5. Subvenciones a museos y colecciones.
6. Toki-erakundeei beren artxibo-sistema abian jartzeko edo/eta sendotzeko diru-laguntzak.	1	6. Subvenciones a entidades locales para la puesta en funcionamiento y/o consolidación de un sistema de archivo propio.
7. Publikoak ez diren artxiboak antolatzeke eta digitalizatzeko diru-laguntzak.	1	7. Subvenciones para la organización y digitalización de archivos no públicos.
8. Liburutegietako liburu-funtsak berritzeko edo/eta handitzeko diru-laguntzak.	1	8. Subvenciones para la dotación y/o renovación de fondos de bibliotecas.
9. Liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko diru-laguntzak.	1	9. Subvenciones para la implantación y/o desarrollo de las nuevas tecnologías en las bibliotecas públicas.
10. Irakurketa sustatzeko eta liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzak.	1	10. Subvenciones para la promoción de la lectura y el uso de los servicios de las bibliotecas públicas.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
3. Txosten juridikoak igortzea eta kontsulta juridikoei erantzuna ematea.	160	3. Emitir informes jurídicos y atención de consultas jurídicas.
4. Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzeko eskaeren izapidetzea eta ebazpena. Aurtengoak eta metatutakoak.	1.700	4. Trámite y resolución de las solicitudes anuales para inscripción en el Registro de la Propiedad Intelectual y de las acumuladas.
5. Artxiboetan tasen ordainketa bideratzea.	1	5. Puesta en marcha del cobro de las tasas en archivos.
6. Erregistroan gordailatutako materialak zaindu eta artxibatzea.	3.450	6. Archivo y custodia de los materiales depositados en el Registro.
7. Eskubideak kudeatzen dituzten erakundeen Estatutuak baimendu eta onartzea.	1	7. Autorizaciones y aprobación de Estatutos de entidades de gestión.
8. Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak kudeatzen dituzten elkarten jardueraren zaintza eta kontrola.	2	8. Vigilancia y control de la actividad de las entidades de gestión que actúan en la Comunidad Autónoma de Euskadi.





PROGRAMA	PROGRAMA
4515 GIZARTE HEDABIDEAK	4515 MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA</u>	<u>10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA</u>
KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL

#### MEMORIA

KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARITZA Sailaren titularrari zuzenean laguntzeko organo bat da eta haren funtzioak azterketa, aholkularitza, koordinazioa eta komunikazioa dira. Sailburuaren programaren jarraipena egiteaz gain, Saileko Sailburuordetzak elkarren artean behar bezala koordinatzeaz arduratzen da, eta Sailaren eta beste administrazio batzuen arteko harremanak bideratzen ditu. Halaber, Sailak Arartekoarekin eta Legebiltzarrarekin duen komunikazioaren arduraduna da, eta instituzio publiko horiek eta beste batzuek egiten dituzten kontsultei ematen die erantzuna.

Halaber, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak du Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak esparru desberdinetan egiten dituen jarduerak herritarrei, hedabideen bitartez, jakinarazteko ardura. Horiek horrela, 2019ko ekitaldirako, lagundu nahi da emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunarekin lotutako baloreak gizartearen hedatzen, euskararen erabilera eta hizkuntza libreki aukeratzeko eskubidea sustatzen, euskal kulturaren proiektio handiagoa bultzatzen zein emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzea eragozten duten oztopoak deuseztatzen eta kultura, kirol eta hizkuntza politikaren arloan berdintasuna sustatzen, besteak beste. Sailak Interneten duen presentzia beste erronketako bat da eta ahalik eta pertsona gehienengana iristen saiatzen da, teknologia berrien bidez, euskadi.eus gobernu-sarearen barruko web orria erabiliz eta Gobernuaren bide irekian, Irekia atarian, parte hartuz. Horri esker gardentasun eta herritarren parte-hartze handiagoa eskainiko dira.

La DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL es un órgano de apoyo directo al titular del Departamento, con funciones de análisis, asesoramiento, coordinación y comunicación. Además del seguimiento del programa del Consejero, vela por la adecuada coordinación entre las Viceconsejerías del Departamento y canaliza las relaciones del Departamento con otras administraciones. Asimismo, es la responsable de la interlocución del Departamento con el Ararteko y con el Parlamento, dando respuesta a cuantas consultas provenientes de éstas y otras instituciones públicas se reciban.

La Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social es asimismo la encargada de dar a conocer a la ciudadanía, a través de los medios de comunicación, las actividades desarrolladas por el Departamento de Cultura y Política Lingüística en sus diversos ámbitos. De este modo, para el ejercicio 2019 se pretende contribuir a difundir en la sociedad valores relacionados con la igualdad de mujeres y hombres, a fomentar el uso del euskera y la libertad de opción lingüística, a impulsar una mayor proyección de la cultura vasca y a eliminar los obstáculos que persisten para alcanzar la igualdad real efectiva de mujeres y hombres y a promover la igualdad en el ámbito de la cultura, el deporte y la política lingüística, entre otros. La presencia del Departamento en Internet es otro de los retos, tratando de llegar al máximo número de personas mediante las nuevas tecnologías, tanto a través de la propia web, incluida en la red gubernamental euskadi.eus, como mediante la participación en el portal Irekia, el canal del Gobierno Abierto, gracias al cual se ofrecerá una mayor transparencia y participación ciudadana.

Bestalde, irрати- eta telebista-zerbitzuak eskaintzeko titulu juridikoak emateko prozedurak era administratiboan gauzatzeko eskuduntza ere badu Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak. Halaber, irрати- eta telebista-operadoreek zerbitzua hitzartutako baldintzetan emango dutela egiaztatzeaz arduratzen den organoa da, eta behar izanez gero, zehapen-espeditenteak irekiko ditu.

EUSKAL IRRATI TELEBISTA S.A. erakunde publikoa Eusko Legebiltzarraren 5/1982 legearen bidez sortu zen, gure Autonomia Estatutuak eskaintzen digun eskuduntzaz baliatuz. Une horretan euskal herritarrei informazioa eman eta haiek politikan parte hartzeko funtsezko tresna gisa sortu zen, baita gure hezkuntza-sistemearekin lankidetzan jarduteko eta euskal kultura sustatu eta hedatzeko oinarritzeko bitarteko gisa ere, euskararen sustapena eta garapena oso kontuan hartuta, eta hori guztia herritarren eskubide eta askatasunak behar bezala garatzeko oinarri gisa.

EiTBren asmoa eta haren helburu nagusiak duela hogeita hamar urte baino gehiago finkatu ziren. Gaur egun ikus-entzunezko euskal sistemaren funtsezko zutabea da EiTB. Euskal enpresa publikoa da eta, izaera horri esker, du gainontzeko hedabide pribatu edo publikoek eskaintzen ez duten produktu bat eskaintzeko aukera. Bere ikus-entzunezko industria sustatzeaz gain, berezko komunikazio-esparru bat garatzeko erraztasunak ematen ditu EiTBk. Bi ezaugarriak ezinbestekoak dira beren informazio- eta kultura-kontakera, herrialdean eta herrialdetik at, behar duten herrialde eta nazioetan.

Euskal gizartearen aniztasuna islatzen duen programazioa eskaintzen jarraituko du EiTBk, eta bere edukiak garatuko ditu sormenaren eta gizarte-kohesiorako balioen arteko oreka bilatuz.

Eskaintzen duen zerbitzu publikoari begira, bi helburu handi hartzen ditu bere gain EiTBk: entzule zein ikusleak irabaztea eta gizarte-prestigiora lortzea. Bi helburuen arteko behar bezalako oreka lortzeko, bere proiektu osoa zerbitzu publikoaren izaeran funtsatuko du.

Zerbitzu publikoaren bokazioarekin bat etorritz, bere programazioak egiteko orduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko du eta hauetan komunikazio inklusiboa, sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatuko ditu, estereotipo sexistetatik aparte eta emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendua genero ikuspegitik eginez. Horrekin batera, bereziki zaindu behar dira ume zein gazteentzako edukiak. Era berean, emakumeek sustatutako edo zuzendutako politika-, kirol-, gizarte-, eta kultura-jardueren zabalkundea sustatu beharko ditu, gizonekiko berdintasunean, eta orobat, emakumeak ahalduz lagungarri diren jarduerak.

Por otra parte, a la Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social le corresponde también la ejecución administrativa de los procedimientos para la concesión de títulos jurídicos de prestación de los servicios de radio y televisión. Asimismo, es el órgano encargado de verificar el cumplimiento por parte de los operadores de radio y televisión de las condiciones esenciales del servicio en los términos suscritos procediendo, si se diera el caso, a la incoación de expedientes sancionadores.

El Ente Público EUSKAL IRRATI TELEBISTA, S.A. fue creado mediante Ley 5/1982 del Parlamento Vasco, en el ejercicio de la competencia que nuestro Estatuto de Autonomía nos ofrece. En aquel momento se creó como instrumento capital para la información y participación política de la ciudadanía vasca, así como medio fundamental de cooperación con nuestro propio sistema educativo y de fomento y difusión de la cultura vasca, teniendo muy presente el fomento y desarrollo del euskera todo ello como base y fundamento para el adecuado desenvolvimiento de los derechos y libertades de los ciudadanos y las ciudadanas.

El propósito de EiTB y sus principales objetivos se establecieron hace más de treinta años. En la actualidad, EiTB es un pilar fundamental del sistema audiovisual vasco. Su carácter de empresa pública vasca, le permite ofrecer un producto diferenciado del resto de las ofertas privadas o públicas. Además de promover una industria audiovisual propia, EiTB facilita el desarrollo de un espacio de comunicación propio. Ambas características son imprescindibles para los países y las naciones que precisan de un relato informativo y cultural propios, dentro y fuera del país.

EiTB seguirá ofreciendo una programación que refleje la pluralidad de la sociedad vasca y desarrollará sus contenidos buscando un equilibrio entre la creatividad y el marco de valores para la cohesión social.

EiTB se compromete con dos grandes objetivos en relación a su oferta de servicio público: sumar audiencia y alcanzar prestigio social. Para conseguir un adecuado equilibrio entre ambos objetivos, sustanciará la totalidad de su proyecto en clave de servicio público.

En consonancia con su vocación de servicio público, en la elaboración de sus programaciones promoverá la igualdad de mujeres y hombres, y en ellas garantizará una comunicación inclusiva, una presencia equilibrada y una imagen plural de ambos sexos, al margen de estereotipos sexistas, y el tratamiento de la violencia contra las mujeres desde el enfoque de género. Todo esto con especial incidencia en los contenidos dirigidos a la población infantil y juvenil. De la misma manera, promoverá la difusión de las actividades políticas, deportivas, sociales y culturales promovidas o dirigidas por mujeres en condiciones de igualdad, así como aquellas que favorezcan su empoderamiento.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>1. SAILBURUAREN KANPO HARREMANAK ETA HEDABIDEEKIKO HARREMANA</b></p> <p>1. Eusko Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko Sailaren harremanak bideratzea.</p> <p>2. Herritarrak informatzea eta, horretarako dauden hedabide desberdinen bidez, haien eskaerei erantzuna ematea.</p> <p>3. Sailak aurrera eramaten dituen jarduerak hedatu eta horiei buruzko informazioa emateko kanpainak egitea, eta hedabideekiko harremana kudeatzea.</p> <p><b>2. IRRATI- ETA TELEBISTA-ZERBITZUAK EMATEKO TITULU JURIDIKOEN EBAZPENA</b></p> <p>1. Marko juridikoa garatzea.</p> <p>2. Titulu juridikoak gauzatzea.</p> <p>3. Euskadiko ikus-entzunezko komunikazio zerbitzua ematen dutenen erregistroa garatzea.</p> <p>4. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren 4/2005 Legea betetzea sustatu; ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu emaileen eta hedabideen artean (bereizkeria eragiten ez duten edukiak, ordezkariak, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendua, etab.).</p> <p><b>3. EITBk ZERBITZU PUBLIKOAREN ESKAINTZA BEHAR BEZALA EGINGO DUELA BERMATZEA, HOTS, EUSKAL KULTURA ETA EUSKARARI, ETA EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN BERTINTASUNA HEDATZEARI LAGUNTZA EMANGO DIELA</b></p> <p>1. EITB erakunde publikoaren eskura jartzea haren funtzionamendurako finantza-bitartekoak.</p> <p>2. Emakume eta gizonen II Berdintasun Plana garatzea EITBn.</p>	<p>1</p> <p>1</p>	<p><b>1. RELACIONES EXTERNAS DEL CONSEJERO, RELACIÓN CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL</b></p> <p>1. Canalizar las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y el Ararteko.</p> <p>2. Informar a la ciudadanía y dar respuesta a sus demandas a través de los diferentes canales de comunicación habilitados para tal fin.</p> <p>3. Elaborar campañas de información y difundir las actividades que lleva a cabo el Departamento, y gestionar la relación con los medios de comunicación social.</p> <p><b>2. RESOLUCIÓN DE LOS TÍTULOS JURÍDICOS DE PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE RADIO Y TELEVISIÓN</b></p> <p>1. Desarrollar el marco jurídico.</p> <p>2. Formalizar los títulos jurídicos.</p> <p>3. Desarrollar el Registro de prestadores del servicio de comunicación audiovisual de Euskadi.</p> <p>4. Promover el cumplimiento de la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres entre los prestadores del servicio de comunicación audiovisual y medios (contenidos no discriminatorios, representación equilibrada, tratamiento de la violencia contra las mujeres, etc.).</p> <p><b>3. GARANTIZAR LA ADECUADA OFERTA DE SERVICIO PÚBLICO DE EITB, CONTRIBUYENDO AL FOMENTO Y DIFUSIÓN DE LA CULTURA VASCA Y DEL EUSKERA, ASÍ COMO DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES</b></p> <p>1. Poner a disposición del Ente Público EITB los medios financieros para su funcionamiento.</p> <p>2. Desarrollar el II Plan de igualdad de Mujeres y Hombres en EITB.</p>



PROGRAMA	PROGRAMA
4711 HIZKUNTZA POLITIKA	4711 POLÍTICA LINGÜÍSTICA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>10 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA</u>	<u>10 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA</u>
HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA	VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA
HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS
EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN DEL EUSKERA
HIZKUNTZA IKERKETA ETA KOORDINAZIORAKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE INVESTIGACIÓN LINGÜÍSTICA Y COORDINACIÓN

#### MEMORIA

Euskal gizartearen garapen integralarekin lotutako bidea da euskararen biziberritzearena eta, beraz, herritar eleanitzez osatutako gizarte elebidun gero eta orekatuago baterantz hurbildu behar gaituen bidea ere.

Norabide horretan, eta adostasun politiko eta sozial zabalena denez prozesu horren sendotasuna bermatzen duen faktore nagusietariko bat, euskararen inguruko diskurtsoak eraberritzen, gaurkotzen eta, ahal den neurrian, harmonizatze bidean jartzen ahalegintzen ari da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, nagusiki Euskararen Aholku Batzordearen elkargunearen bidez.

Ahalegin horren emaitza izan dira, besteak beste, Euskararen Aholku Batzordeak, partaidetza zabal batez onartu dituen dokumentu hauek: ESEPen (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) diagnostikoari buruzko AMIA dokumentua, "Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa (EGOD egitasmoa)" eta "Eta hemendik aurrera zer?" dokumentua. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak ere onartu duen azken dokumentu honek datozen 20 urteetarako hizkuntza politikaren oinarri eta lehen tasun markoa finkatzen du, eta eranskin gisa darama Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak landutako "Euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunaren oinarriak" izeneko dokumentua.

El proceso de revitalización del euskera y, en consecuencia, el camino que ha de conducirnos a una sociedad cada vez más equilibradamente plurilingüe integrada por ciudadanos y ciudadanas bilingües, está estrechamente vinculado al desarrollo integral de la sociedad vasca.

En esa dirección, y puesto que uno de los factores esenciales que garantizan la solidez del proceso es un amplio consenso social y político, la Viceconsejería de Política Lingüística se esfuerza, especialmente a través del espacio de encuentro que es el Consejo Asesor del Euskera, por renovar, actualizar y, en la medida de lo posible, armonizar los discursos en torno al euskera.

Fruto de dicho esfuerzo han visto la luz, entre otros, los siguientes documentos aprobados por el Consejo Asesor del Euskera: documento DAFO relativo al diagnóstico del ESEP (Plan de Acción para la Promoción del Euskera), "Análisis de los Discursos Básicos sobre el Euskera (proyecto EGOD)" y el documento "¿Y a partir de ahora qué?". Este último documento, aprobado también por el Consejo del Gobierno Vasco, fija las bases y marco de prioridades de la política lingüística para los próximos 20 años, y contiene como anexo el documento elaborado por la Viceconsejería de Política Lingüística titulado "Bases para el suelo común de un discurso compartido sobre el euskera".

2017ko otsailaren 24an Iñigo Urkullu lehendakariak XI. Legealdirako aurkeztutako Euskadi 2020 Gobernu Programan jasotako euskararen konpromiso nagusiak betetzeko bidea egiten ari da: 116. konpromisoa: Euskararen gizarte-hazkundera finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza gaitasuna hobetuz; 117. konpromisoa: Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzionaletan zabaldu euskararen erabilpena; 118. konpromisoa: Eraginkortasunez egin aurrera, herritarren hizkuntza eskubideak eremu publikoan eta pribatuan gauzatzeko aldera; 119. konpromisoa: Euskararen hiru lurraldeen erakundeen arteko lankidetzara antolatuz eta indartuz, eta euskararen nazioarteko aitormena bultzatu; 120. konpromisoa: Euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiektzioa sustatu, Etxepare Institutuaren bidez. Horrez gainera, Gobernu Programan jasotako oinarriak xehatu dira Euskararen Agenda Estrategikoaren bitartez.

Horietan guztietan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak euskararen aldeko politika proaktiboa bultzatzen du, euskara sustatzea euskal gizartearen kohesioa eta ongizatea eraikitzen laguntzea delako.

Euskararen ezagutza eta erabilera etengabe sustatzea nahitaetzeko ekimenak dira kalitatezko bizikidetzan oinarritutako gizarte kohesioan aurrera egiteko eta, horrekin batera, euskal herritarren hizkuntza eskubideak zaintzeko.

Nekez egin ahal izango genuke aurrera euskara biziberritzeko bide horretan, adostasun politiko eta sozial zabala lortu ezean, haren eskutik baitatuz gizartearen onspena eta herritarren atxikimendua.

Horiekin batera, Eusko Jaurlaritzak gauzatu nahi duen hizkuntza politikak ezinbestekoa du zeharkakotasun printzipioa jasotzea, hau da, euskararen erabilera sustatzea jarduera eremu guztietan, elementu berezkoa izatea, egunerokotasunaren osagai gisa: administrazioetan bezala, euskal gizartearen ere; jarduera politikoan bezala, gizarte bizitzaren alor orotan ere; kulturgintzan bezala, herrigintzan eta nazioartean ere.

Azpimarratu behar da Legegintzaldi honetan Euskararen Agenda Estrategikoan eta hizkuntza politikaren jarduera eta politika guztietan genero ikuspegia txertatzearen erronkari bereziki helduko zaiola.

Oinarri nagusi horietan finkatzen ditugu, beraz, 2019. ekitaldian garatuko dugun hizkuntza politikaren lehentasunok:

A) Euskararen garapena ezagutu eta bere erabilera eragiten duten faktore eta tresnen ezagutzan sakonduko duen ikerketa eta lan aplikatuetan indarra jartzea. Modu berezian aztertu nahi da generoak zein eragin duen euskaren erabilera, eta oro har, errealitate soziolingüistikoan.

El 24 de febrero de 2017 el Lehendakari Iñigo Urkullu presentó Euskadi 2020 programa de Gobierno para la XI Legislatura. Los compromisos más importantes recogidos en dicho programa ya han iniciado su andadura: compromiso 116: Afianzar el crecimiento social del euskera, aumentando el número de vascohablantes y mejorando su competencia lingüística; compromiso 117: Extender el uso del euskera en el ocio y los ámbitos funcionales no formales; compromiso 118: Avanzar con eficacia en la garantía del ejercicio de los derechos lingüísticos de la ciudadanía en los ámbitos público y privado; compromiso 119: Articular y fortalecer la colaboración interinstitucional de los tres Territorios del euskera e impulsar el reconocimiento internacional del euskera; compromiso 120: Impulsar la proyección internacional de la cultura vasca y del euskera a través del Instituto Etxepare. Asimismo, las bases indicadas en dicho Programa de Gobierno han sido objeto de una mayor concreción mediante la Agenda Estratégica del Euskera.

Basándose en todo ello, el Gobierno Vasco promueve una política proactiva en favor del euskera, porque fomentar el euskera es contribuir a la construcción de una sociedad más cohesionada y con un mayor grado de bienestar.

La promoción permanente del conocimiento y del uso del euskera son acciones imprescindibles para avanzar en la cohesión social basada en una convivencia de calidad y, simultáneamente, preservar los derechos lingüísticos de la ciudadanía vasca.

Difícilmente podríamos avanzar en ese camino hacia la revitalización del euskera sin intentar lograr un amplio acuerdo político y social, de cuya mano habrán de venir la aprobación de la sociedad y adhesión de la ciudadanía.

Junto con todo ello, la política lingüística que el Gobierno Vasco se propone llevar a cabo incorpora el principio de transversalidad como ingrediente indispensable, lo cual supone que la promoción del uso del euskera sea un elemento consustancial en todos los ámbitos de actuación: en las administraciones y en la sociedad vasca; en la actividad política y en los espacios propios de la vida social; en la actividad cultural y en la acción política o la construcción nacional.

Hay que destacar que en esta Legislatura se va trabajar de forma prioritaria en el reto de incorporar la perspectiva de género tanto en la Agenda Estratégica del Euskera como en toda las políticas y actuaciones en materia de política lingüística.

Sobre tales cimientos se alzan, por tanto, las prioridades de la política lingüística que desarrollaremos en el ejercicio 2019:

A) Invertir esfuerzos en la elaboración de estudios y trabajos de investigación aplicada, orientados a conocer el desarrollo del euskera y profundizar en el estudio de los factores y herramientas que inciden en su uso. De forma específica se trabajará en el análisis del género en el uso del euskera y en general en la realidad sociolingüística.

B) Euskadiko herri erakundeen sarean hizkuntza politikaren zeharlerrotasuna praktikan bermatzeko urrats sendoak ematea, Eusko Jaurlaritzatik hasita. Era berean, herri erakundeen arteko elkarlana bizkortu eta sendotzeari ere lehentasunez ekingo zaio.

C) 2012an Euskararen Aholku Batzordeak egin eta Eusko Jaurlaritzak onartu eta 2013an Eusko Legebiltzarrak berretsiriko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) inplementatzen jarraitzea eta haren jarraipena egitea.

D) Ikerketa eta aplikazio mailan, Euskararen Adierazle Sistema garatzen jarraitzea, Eusko Jaurlaritza izanik egitasmoaren lerro-burua. Horren baitan genero ikuspegia xertatuko da.

E) Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean aurrera egitea, esparru bakoitzerako egoki jotzen den erritmo eta intentsitateaz.

F) Euskal hiztunen mintza jarduna trinkotzeko estrategiak garatzea.

G) Euskararen ezagutzaren aurrerabidea etengabe bultzatzen jarraitzea, helduen euskalduntzea sendotuz, familia bidezko transmisioa bermatuz eta, era berean, euskara erabiltzen ez dutenen jarreran eraginez.

H) Euskararen erabilerarako jauzia bizkortzeko gizarte aktibazioan oinarritutako estrategia lagungarriak mamitzea, eremu ez-formalei arreta berezia eskainiz.

I) Lehentasunezko zatit jotzen da, halaber, alor sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko lan sistematizatua garatzen jarraitzea.

J) Gizarte bizitzan oro har, eta bereziki Ingurune Digitalean, euskararen presentzia eta erabilera areagotzea eta sendotzea.

K) Euskarazko hedabideen egonkortasuna bermatzeko urrats eraginkorrak ematea.

L) Euskararen corpusa sendotzeko behar diren ekimenak bideratzea. Lehentasun horren inguruan, bereziki, berdintasunaren aldeko hizkera gorpuztean lan egingo da.

M) Euskara biziberritzeko prozesuan parte hartzen duten askotariko eragile eta herri aginteen arteko elkarlana sustatzea.

N) Euskararen bizipena erakargarria gerta dadin, gizartean duen prestigioa areagotzea, bai kultur ikuspegitik, bai eta harreman sozial ekonomikoenetatik ere.

Lehentasun horiei jarraiki, ondorengo jardunbideak garatuko ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) 2019an:

B) Dar pasos firmes para garantizar la práctica de la transversalidad de la política lingüística en la red de entidades públicas de Euskadi, empezando desde el Gobierno Vasco. Asimismo, será tarea prioritaria la de agilizar y fortalecer el trabajo colectivo entre entidades públicas.

C) Continuar implementando y realizar el seguimiento del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP) elaborado por el Consejo Asesor del Euskera, aprobado por el Gobierno Vasco en 2012 y ratificado por el Parlamento Vasco en 2013.

D) En el ámbito de la investigación y su aplicación, continuar desarrollando el Sistema de Indicadores del Euskera, con arreglo a la posición de jefatura de fila que corresponde al Gobierno Vasco. Se trabajará además en la inclusión de la perspectiva de género en dicho sistema.

E) Avanzar en la protección de los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía, con el ritmo y la intensidad que se estimen oportunos para cada espacio.

F) Desarrollar estrategias para afianzar la fluidez verbal de las personas vascohablantes.

G) Continuar avanzando en el conocimiento del euskera. A tal fin, fortalecer la euskaldunización de las personas adultas, garantizar la transmisión familiar y, asimismo, incidir en la actitud de las personas que no utilizan el euskera.

H) Elaborar estrategias basadas en la activación social, que faciliten poder dar el salto al uso del euskera, prestando especial atención a los espacios no formales.

I) Se considerará también prioritario dar continuidad al trabajo sistematizado dirigido a incrementar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico.

J) Aumentar y fortalecer la presencia y el uso del euskera en la vida social en general, y especialmente en el Entorno Digital.

K) Llevar a cabo acciones eficaces para garantizar la consolidación de los medios de comunicación en euskera.

L) Adoptar las iniciativas necesarias para afianzar el corpus del euskera. En relación a esta prioridad se trabajará además en el desarrollo del corpus en euskera en materia de igualdad.

M) Fomentar el trabajo colectivo entre los poderes públicos y agentes que participan en el proceso de revitalización del euskera.

N) Aumentar el prestigio del euskera en la sociedad para que su vivencia resulte más atractiva, tanto desde el punto de vista cultural como las relaciones sociales y económicas.

Con arreglo a las prioridades descritas, la Viceconsejería de Política Lingüística (VPL) desarrollará las siguientes líneas de actuación en 2019:

1. 2017-2020 Euskararen Agenda Estrategikoaren 2019. urteko kudeaketa plana diseinatu, onartu eta abian jartzea. Eta horren baitan genero ikuspegia txertatu.
2. 86/1997 Dekretuaren gaineko hausnarketa fase bati hasiera ematea, berau aldatzeko asmoz (86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena).
3. Herri Aginteen Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA) dinamizatzen jarraitzea, gainerako herri erakundeekin lankidetzan.
4. Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomiadun guztietako Euskara Atalak koordinatzen jarraitzea, VI. Plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean ezarritako helburuak lortu daitezen metodologia bateratu baten bitartez eta era homogeenan.
5. Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia, Bikaineko Erreferentzia Marko Estandarrean oinarritutakoa, zabaltzen eta orokortzen jarraitzea sail eta erakunde autonomiadun guztietan, baita euren menpeko sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko entitate publikoetan ere, garatutako ekintzak eta helburuen betetze mailak jasoko dituzten urteroko kudeaketa planen bidez.
6. Euskararen Aholku Batzordearen markoan, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) jarraipena egitea.
7. Herri-administrazio eta zuzenbide pribatuko entitateei egokitutako Bikain ziurtagiri berritua hedatzea.
8. Euskararen Adierazle Sistema (EAS) egiteko lanekin jarraitzea, 2015-2020 urtealdirako aurreikusitako eginkizunetan: 1) adierazle sistemaren oinarriak eta etorkizuna finkatzea; 2) informazioaren eta iturrien identifikazioa eta koordinazioa bideratzen jarraitzea; 3) informazioen eta iturrien gabezia eta hutsuneak ezagutu eta haiek zuzentzen hasteko irizpideak ematea.
9. Ziurtatu Euskarazko Titulu eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan urtero erregistratzen direla 47/2012 Dekretuak euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesten dituen pertsonen datuak.
10. Herri administrazioen arteko koordinazioa bultzatu HAKOBA eta Mahai sektorialeko batzordearen bidez, euskararen erabileran adostasuna bilatzeko, eta horri begirako ekimenak abian jartzeko ahalegina egitea.
1. Diseñar, aprobar y desarrollar el plan de gestión de la Agenda Estratégica del Euskera (2017-2020) para el año 2019. Y trabajar en la inclusión del enfoque de género en esta.
2. Iniciar una fase de reflexión sobre el Decreto 86/1997, encaminada a su modificación (Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi).
3. Continuar con la labor de dinamización de la Comisión de Coordinación Interinstitucional (HAKOBA), en colaboración con otras entidades públicas.
4. Coordinar las Unidades de Euskera de todos los departamentos y organismos autónomos del Gobierno Vasco, al objeto de trabajar con una metodología conjunta y de manera homogénea en la consecución de los objetivos marcados en el Plan de Normalización del Uso del Euskera en el Gobierno Vasco para el VI periodo de planificación.
5. Continuar haciendo extensivo El Plan de Normalización del Uso del Euskera del Gobierno Vasco, alineado con el Marco de Referencia Estándar de Bikain, y generalizarlo en todos los departamentos y organismos autónomos, así como en las sociedades públicas y entes públicos de derecho privado dependientes de ellos, mediante planes de gestión anuales que recojan las acciones a desarrollar y el grado de cumplimiento de los objetivos.
6. En el marco del Consejo Asesor del Euskera, realizar el seguimiento del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP).
7. Extender el renovado certificado Bikain a las administraciones públicas y a los entes de derecho privado.
8. Continuar elaborando el Sistema de Indicadores del Euskera (EAS), con arreglo a las tareas previstas para el período 2015-2020: 1) establecer las bases y el desarrollo previsto para el Sistema de Indicadores; 2) identificar y coordinar la información y sus fuentes; 3) detectar las carencias y lagunas en las informaciones y fuentes, para proponer criterios de corrección.
9. Garantizar que el Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera registre cada año los datos de las personas exentas de acreditación del certificado de euskera por haber realizado sus estudios en esta lengua (Decreto 47/2012).
10. Promover la coordinación entre las administraciones públicas por medio de HAKOBA y de las reuniones de la Comisión de la Mesa Sectorial, para impulsar el acuerdo en la utilización del euskera e intentar poner en marcha acciones en esa dirección.



11. Justizia Administrazioiko Hizkuntza Normalkuntzako Plan Orokorra Eusko Jaurlaritzako VI. Plangintzaldiko eredura egokitzeko koordinazio lanak egitea.
12. Ikerketa alorrean, euskararen bilakabidearen gaineko azterketak egitea, eta horrez gain, euskararen erabilera eragiten duten faktoreen gaineko ikerketa egitea eragiteko tresnak proposatu eta proban jartzeko.
13. Bikain bultzatu, zabaldu eta kudeaketan laguntzea.
14. Hizkuntza normalizazioko teknikarien formazioa hobetzeko Prestakuntza-Plana zehaztu 2019-2022 eperako. Plan horretan, kudeaketari eta genero berdintasunari leku eta garrantzia berezia eman.
15. Toki-erakundeentzako aholkularitza eta koordinazio sakontzea, ESEP plan estrategikoak diseinatu eta inplementatzeko.
16. ESEPEko plan estrategikoak diseinatzeko eta garatzeko, toki-erakundeentzako diru-laguntza deialdiaren gaineko hausnarketa faseari ekitea, ahalik eta eraginkorra bihurtzeko laguntza hori. Horretarako erakunde interesatuen iritzia bildu beharko da.
17. Herritarren hizkuntza eskubideak babesteko zerbitzu publikoa (ELEBIDE) sendotzea, jarduera-protokoloan hobekuntzak sartuta.
18. Zerbitzu publikoetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean, era progresibo eta gradualean aurrera egitea, arreta berezia ipiniz osasun-, polizia- eta justizia-zerbitzuetan.
19. Euskararen erabilera esparru ez-formaletan indartzea.
20. Haur eta gazteei begirako aisialdirako proiektuak sustatzea euskararen erabilera areagotzeko, Euskararen Aholku Batzordeak 2016. urtean "Gu gazteok" txostenean emandako gomendioak garatuz.
21. Udal eta foru aldundiekin lankidetzan Euskaraldia ekimena sustatzea euskararen erabilera areagotzeko.
22. Euskarazko hedabideen finantzaketa marko berria adostea foru aldundiekin.
23. Euskaldun pasibo helduen multzoak euskararen erabilera bultzatzerakoan duen garrantzia aztertzea, eta gizartearen baitan prestigiatzeko estrategiak lantzea.
11. Realizar las labores de coordinación precisas para que el Plan General de Normalización Lingüística de la Administración de Justicia se ajuste al modelo del VI. Plan de Normalización del Gobierno Vasco.
12. En el ámbito de la investigación, realizar estudios relativos a la evolución del euskera, así como a los factores que inciden en su uso, con el fin de poder elaborar y testar herramientas válidas para incidir en el uso del euskera.
13. Impulsar, difundir y colaborar en la gestión de Bikain.
14. Definir el Plan de Formación 2019-2022 para la mejora de la formación del personal técnico de normalización. En el Plan se incluirán la gestión y la igualdad de género y se incidirá en ellas.
15. Profundizar en el asesoramiento y coordinación de las entidades locales para el diseño e implementación de los planes estratégicos en el marco de ESEP.
16. Iniciar una fase de reflexión sobre la convocatoria de ayudas a las entidades locales para el diseño y el desarrollo de los planes estratégicos de ESEP, para que dicha ayuda sea lo más eficaz posible. Con ese fin, se recogerá la opinión de las instituciones implicadas.
17. Consolidar ELEBIDE (servicio público para la protección de los derechos lingüísticos), implementando mejoras en su protocolo de actuación.
18. Avanzar de manera progresiva y gradual en lo referente a la protección de los derechos lingüísticos de la ciudadanía en los servicios públicos, prestando especial atención a los servicios sanitarios, policiales y de justicia.
19. Afianzar el uso del euskera en los ámbitos no formales.
20. Desarrollar proyectos para el fomento del uso del euskera en el ocio dirigidos a la infancia y la juventud, desarrollando las propuestas realizadas en 2016 por el Consejo Asesor del Euskera en el informe "Gu Gazteok".
21. Desarrollar en colaboración con los ayuntamientos y las diputaciones forales la iniciativa Euskaraldia para el fomento del uso del euskera.
22. Acordar junto con las diputaciones forales el nuevo marco de financiación para los medios de comunicación en euskera.
23. Analizar la importancia de la población vasca pasiva adulta a la hora de impulsar el uso del euskera y elaborar estrategias para prestigiar su uso en la sociedad.

24. 2015eko uztailaren 22ko Aginduen 7.2 artikuluan ageri denaren arabera, HEOCaren (Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum) ezarpenerako, euskaltegi eta euskararen autoikaskuntzarako zentro bakoitzak bere curriculum-proiektua landuko du, curriculum-jarduerarekiko printzipioak eta irizpideak ezarri, balio-aukerak azaldu eta xedeak zehaztu.

25. HEOCean oinarrituta, euskararen ikas-irakaskuntzarako erreferentziatzko curriculum baten osaketa lantzeari ekingo zaio, lanbideetan gauzatzen diren komunikazio-berezitasunak kontuan hartuz.

26. HABEren prestakuntza-plan berria 2018-2021 eperako dago idatzita. Helburu nagusi du helduen euskalduntzearen alorreko eragileen lana kalitatez eta modu eraginkorrean egiteko gaitasuna areagotzea.

27. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) B1 mailarako eskuliburu didaktikoa merkaturatuko da. HEOCaren B1 mailarako bideoetan oinarritutako jardun biko sekuentzia didaktikoak ere sortuko dira. Egitasmo horren harian, HEOCean oinarritutako Bagoaz B1 egitasmoaren gida didaktikoa argitaratuko da, irakasleen erabilerarako.

28. Udal Euskaltegien, Euskaltegi Pribatu Homologatuen jarduerarako laguntza deialdiak eta euskaltegietako ikasleentzako diru-laguntza indibidualen deialdia gauzatzea.

29. Euskararen ikasketan, pertsona helduentzako B2 mailaraino doakotasuna lortzeko prozesua lantzea HAKOBAREN bidez, aurreikusitako maila akademikoak gaintzeari lotutako doakotasuna hain zuzen ere.

30. Hitzun berrien gaineko ikerketa sustatzea.

31. Alor sozioekonomikoan, euskararen erabilera bultzatzea, enpresetako euskara planen eta Bikain ziurtagiri eraberrituaren bidez, sektoreko eragileekin harremanak sendotuz eta horiei jarraipena emanez. Alor honetan, besteak beste, EUSLAN programa pilotuaren emaitzak aztertu eta sozializatuko dira, etorkizuneko lan-ildoak zehazteko.

Horrez gain, 2018an garatutako plan estrategikoa abian jartzeko bidea egitea.

Era berean, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak aintzat hartuak izateko bidea egiten jarraituko da.

32. Hedabideetan euskararen presentzia areagotzea oro har eta euskarazko hedabideak sendotzea.

24. En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 7.2 de la Orden de 22 de julio de 2015, para el establecimiento del HEOC (Currículum Básico para la Euskaldunización de Adultos), cada euskaltegi o centro de autoaprendizaje de euskara elaborará su propio proyecto curricular, definiendo los principios y criterios de aplicación de los mismos en el euskaltegi, fijando los objetivos propuestos y reseñando las opciones realizadas para la definición del mismo.

25. Se diseñará la elaboración de un currículo de referencia para la enseñanza y aprendizaje del euskara por personas adultas, fundamentado en el HEOC, tomando en consideración las especificidades comunicativas de los distintos ámbitos comunicativos profesionales.

26. HABE ha definido su plan de formación para el período 2018-2021, que recoge como objetivo prioritario el fomento de la capacidad de trabajo de los agentes implicados en la euskaldunización de personas adultas, mejorando los parámetros de calidad y eficiencia.

27. Se comercializará el manual didáctico para el nivel B1 del Currículo Básico para la Euskaldunización de Personas Adultas (HEOC). Asimismo, se crearán las secuencias didácticas correspondientes a los videos elaborados para el nivel B1 de HEOC. Se publicará la guía didáctica de la serie Bagoaz B1 para uso del profesorado, basada en el HEOC.

28. Ejecutar las convocatorias de ayudas para la actividad de los Euskaltegis Municipales, Euskaltegis Privados Homologados y la convocatoria de ayudas individuales a los alumnos y las alumnas de los euskaltegis.

29. Referente al aprendizaje del euskera, trabajar junto con HAKOBA la gratuidad del proceso de aprendizaje de las Personas Adultas hasta el nivel B2, ligando siempre dicha gratuidad a la superación de los niveles académicos previstos.

30. Promover la investigación sobre los y las nuevas hablantes.

31. Impulsar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico mediante planes de euskera en empresas y el certificado Bikain renovado, afianzando y dando continuidad a las relaciones establecidas con los agentes del sector. En este ámbito, entre otras acciones, se analizarán los resultados obtenidos en el programa piloto EUSLAN, y se darán a conocer, para definir futuras líneas de acción.

Además, se darán pasos para poner en marcha en plan estratégico desarrollado en 2018.

Del mismo modo se dará continuidad al trabajo orientado a la consecución del respeto de los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias.

32. Impulsar la presencia del euskera en los medios de comunicación en general y afianzar los medios de comunicación en euskera.

33. Ingurune digitalean euskararen erabilera sustatzea, betiere "Euskarazko IKTak: gomendioak herri-agintzeentzat" dokumentua kontuan hartuz eta EABren Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Berezia adostutakoaren arabera.

34. Hiztegi gintza, toponimia eta terminologiaren lanketan ari diren erakundeekin lankidetzan jardutea.

35. EAEz besteko euskararen lurraldeetako eragile publiko zein pribatuekin hitzartutako lankidetzan sakontzea.

36. Euskararen garapen sozialean diharduten eragileen lana eta lankidetzan bultzatzea.

37. Tokian tokiko hizkuntzak biziberritzeko prozesuetan ari diren beste herrialdeetako herri aginte eta elkargoekin lankidetzan sustatzea, bai Espainiako Estatuan bai Europan eta mundu zabalean.

Era berean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkar hartuta, garapen bidean diren komunitateekiko lankidetzan jardutea, tokian tokiko hizkuntzen biziberritze alorrean.

38. Euskararen erabileraren aldeko sentiberatasuna sustatzeko ekimenak bideratzea eta tresnak garatzen jarraitzea.

39. Azterketa soziolinguistikoa genero ikuspegia txertatu eta generoaren eta hizkuntzaren harremanaren inguruko ikerketak sustatu.

40. Berdintasun politiken eta hizkuntza politiken ezagutza eta praktiken uztartetarako lagungarri izango den marko teorikoa, diskurtsoa, eztabaida- guneak eta ezagupena eraiki.

41. HABE-n Berdintasun politikak martxan jarri. Berdintasunaren inguruan diagnosis eta plangintza egin eta berdintasun egiturak sortu.

33. Promover el uso del euskera en el Entorno Digital, tomando en consideración el documento "Las TIC en euskera: recomendaciones para los poderes públicos" y según lo acordado en la Comisión Especial para Fomentar el Euskera en el Entorno Digital, del Consejo Asesor del Euskera.

34. Colaborar con las asociaciones correspondientes en la elaboración de lexicografía, toponimia y terminología.

35. Profundizar en la colaboración con agentes públicos y privados de los territorios vascos ajenos a la CAE.

36. Impulsar el trabajo y la colaboración con los agentes que trabajan en el desarrollo social del euskera.

37. Promover la colaboración, tanto en el marco del Estado Español como en el de Europa y del mundo, con los poderes públicos y diferentes entes de otros países que desarrollen políticas públicas de revitalización lingüística.

Del mismo modo, y de acuerdo con la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, colaborar con las comunidades en vías de desarrollo, en el ámbito de la revitalización de las lenguas propias.

38. Seguir fomentando iniciativas de sensibilización y desarrollar instrumentos que propicien el uso del euskera en la sociedad.

39. Incluir la perspectiva de género en el análisis sociolingüístico e impulsar investigaciones que pongan en relación el género y el idioma.

40. Desarrollar el marco teórico - el discurso, los espacios de debate y el conocimiento- que ayude a aunar el conocimiento y las prácticas de las políticas de igualdad y las políticas en materia lingüística.

